



JARRAIPENA LEHENDAKARITZAN  
***Garaile bezain ahulduta***

EH Bilduk emaitza historikoa lortu du, baina gobernu aldatzeko bidean bakarrik dago

4-13. orrialdeak

# 2.868 | 2024 / 04 / 28 | 4,00 €



***“Gure herriaren etorkizuna eta euskararena batera joango dira”***

16 | IÑAKI SOTO



***“Beti lortzen da zer edo zer, beti eragiten dugu”***

32 | ASKATASUNAREN ONTZIDIA



**LARRUN #295**  
***Dronea, inperialismoaren fetitxea***

# HAUSNARREAN

*Ardiek egin naute artzain*

Josebe Blancoren liburua

## Aurkezpen hitzaldiak

**Apirilak 25 / Agurain. 19:00 Udala**

**Maiatzak 16 / Zumaia. 18:30  
Emakumeon\* Etxea**

**Maiatzak 17 / Leitza. 18:00  
Liburutegia**

**Maiatzak 18 / Artea. 11:30  
Herriko benta**

**Maiatzak 31 / Bilbo. 19:00 Karmela**  
(Fika kalea 44, Santutxu)

**Ekainak 6 / Gasteiz. 18:30  
Elkar liburu-denda** (San Prudencio kalea)

Zure herrian hitzaldia antolatu nahi baduzu,  
idatzi: [bizibaratzea@bizibaratzea.eus](mailto:bizibaratzea@bizibaratzea.eus)



**2. argitaraldia**

Prezioa **22€**

[azoka.argia.eus](http://azoka.argia.eus) (+34) 943 37 15 45

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: LUIS TEJIDO / EFE

## Iritziak

- 21 | KARMELO LANDA
- 22 | KOLDO ALDALUR
- 23 | AHOZTAR ZELAIETA
- 23 | EDU ZELAIETA
- 24 | KIMETZ ARANA

## Finkoak

- 42 | BIZI BARATZEA
- 46 | ARGIA KOMUNITATEA
- 47 | DENBORAREN MAKINA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



### 26 | BOLLO TOPAKETAK

Apirilaren 26, 27 eta 28an Leitzan izango da Euskal Herriko bolleren topaketa. 40 urte pasa dira Euskal Herriko lesbianen lehen topaketak egin zirenetik, Erreterian. Zer beharri erantzun zieten orduko topaketek, eta zeintzuei oraingoek? Jenofa Berhokoirgoien orduko antolatzaileekin bildu da eta urteotako ibilbidea aztertu du.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

14 | NET HURBIL

**Migrazio eta Asilo ituna: Europaren legatu kolonialista denon begien bistan**

Urko Apaolaza

16 | PERTSONAIA | IÑAKI SOTO

**“Gure herriaren etorkizuna eta hizkuntzarena batera joango dira”**

Miel A. Elustondo

32 | PALESTINA | ASKATASUNAREN ONTZIDIA

**“Badira hartzea merezi duten arriskuak, genozidioa gelditu behar dugu”**

Zigor Olabarria eta Xabier Letona

36 | NENQAYNI CH'I HIZKUNTZAZ | PAULA LAITA

**“Komunitateko adineko baten esanak liburukoak baino balio handiagoa du”**

Asier Basurto

40 | GORPUTZ HOTSAK | JAKES TXAPARTEGI

**“Pianoa konpainia izatea bezala da, ez zara bakarrik sentitzen”**

Olaia L. Garaialde

48 | KULTURA | SAIAKERA

**Gangster maritxuen banda**

Julen Azpitarte

**Jabetza**  
 Komunikazio Biziagoa  
 S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

**Erredakzioa**  
 Ainara Rodil, Amaia Lekunberri,  
 Axier Lopez, Eneritz Arzallus,  
 Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,  
 Jenofa Berhokoirgoien, Jon Torner,  
 Lander Arbelaitz, Leire Artola,  
 Manex Moreno, Mikel Garcia, Olaia L.  
 Garaialde, Onintza Irureta, Pello Zubiria,  
 Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

**Diseinua**  
 Maitane Gartzandia

**Argazkilaria**  
 Dani Blanco

**Produktzioa eta inprimaketa**  
 Antza S.A.L.

**Administrazioa**  
 Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

**Salmenta**  
 Karlos Olasolo, Pello Basurto

**Banaketa**  
 Olatz Korta

**Azoka**  
 Mikel Olabide

**Idazkaritza**  
 Aloña Sorraluze, Bego Zuza

**Web garapena**  
 Asier Iturralde

**Informatika**  
 Iametzta interaktiboa, S.L.

**Lege gordailua:** SS 837-2012  
**ISSN:** 0213-909X  
**Batzorde parekidea:** 72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

**Posta elektronikoak**  
 komertzial@argia.eus  
 komunitatea@argia.eus

**Telefonoa**  
 943371545

**Gipuzkoa**  
 Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria  
**Nafarroa**  
 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
 31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

  
 KOMUNIKAZIO GRAFIKOA




  
 software productions

## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.


 Ekoedizioaren Institutuko bazkide da ARGIA



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
 SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
 SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
 POLITIKA SAILA



ALDAKETA  
DA ORAIN\*

ehbildu

ehbildu

# Aldaketarik ez, baina...

Hauteskundeetan alderdi ia guztiak garaile agertzen dira, hala ez izan arren. Oraingoan Podemos izan da salbuespena, emaitzari nondik heldu ere ez dutelako. Gobernu aldaketarik ez da izango EAEn, eta urrun dirudi eszenatoki horrek eskuindarren blokea eta haren makulu sozialista ikusita. Gobernu aldaketarako indarra bakarrik dago. Edonola ere, hauteskundeotan EH Bilduk badu pozik egoteko arrazoirik. EAEko mapa politikoa berria berde argiz josita dago, salbu mendebalde ia guztia. Baina, Araban eta Gipuzkoan lortutakoari garrantzia kendu gabe, esanguratsua da non eta Bilbon jeltzaleengandik 28.000 bat botorra geratzea, EAE osoan EAJK atera dion koska ia horixe bera izanda, edo non eta Barakaldon bigarren indarra izatea noren eta sozialisten gainetik. Bizkaiko hiriburuaren inguruneak nagusiki eusten baitio beste lau urtez indarrean jarraituko duen erregimeneko buruaren nagusitasunari.



ALDAKETA  
DA ORAIN\*

ehildu

ehildu

SAVONNARA FRASCHI

# Ezker olatuan, surflari bakarra

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

**S**urflari bakarra du Mendebalde-  
rantz doan olatuak. Alboko kide  
guztiak jan ditu EH Bilduk. Meteoro-  
logoek aurreikusi gisa hondamendia  
heldu da Podemosen kostaldera, eta  
Pilar Garridoren aurpegia ikusi bes-  
terik ez zegoen hori horrela izan dela  
berresteko. Sekuentzia tragikoa bizitu  
duenaren tristura. Sumarrekin aurkeztu  
zen Espainiako hauteskundeetara,  
Sumar “etorkizuna” zela esanda, baina  
ez zuen diputatu akta lortu eta atzera  
ere kamiseta morea jantzi du Gasteizko  
ganberarako, Sumar Euskadin ez omen  
dago-eta “artikulatuta”. Jokaldia ez zaio  
ongi atera, bistan da. Eta ez da Sumar  
izugarri “artikulatuta” dagoelako EAEn,  
baina eserleku bat lortu du sikiera, sa-  
torraren gisan. Inork gutxi espero zuen  
lekuan atera du burua. Gizaker inkesta-  
etxeakoak galdu samar egon dira: otsai-  
leko inkestan, eserlekua ematekotan,  
Gipuzkoan ematen zioten; eta apirilean,  
berriz, Bizkaian. Araban atera du.

Ezkererantz doa olatua, Ekialdetik  
Mendebaldera, gero eta udalerrri gehia-  
gotan nagusitu da EH Bildu koalizioa,  
baina olatua bideratzeko bidelagunak  
falta zaizkio. Ez dauka bazkiderik ezke-  
rreko espektro zabalean. Baten batek  
Alderdi Sozialistaren siglak daramatzen  
alderdia aipatuko luke, gutxienez siglei  
erreparatuta, eta arrazoi. Izan ere, PSE-  
EEri kitzika beharko liokete EH Bilduren  
zenbait proposamen politiko-ekono-  
mikoek, sozialdemokraziaren printzipoetan  
dantzan dabilatzalako horietako  
hainbat, eta fundamenturik duen boto-  
emaile sozialistaren batek pentsatuko  
zuen horixe bera. Baina Anduezak eta  
enparauek ez dute horretarako biderik  
utzi. Ez dute utzi, Madrilen nahi izan ez  
dutelako. Espainiako politikagintzak eta  
horren bueltako sektore mediatikoak ez  
lukete ametituko PSE-EEK EH Bildu ba-  
besterik. Anduezak Otxandiano babestu-  
ko balu, Espainiako gobernagarritasuna  
kinka larrian ipiniko litzateke, besteak  
beste EAJk Madrilen hartuko lukeen ja-



**Gauza gutxi geratu dira argitzeko; Anduezak zer eskatuko dion Pradalesi. Sail bat nahiko du berarentzat, beste bat Denis Itxasorentzat, eta hiru sailetik laura pasatu**

rreragatik, kasketa harrapatuta, Juntsek urte luzez izan duenaren tankerakoarekin –Amnistia Legea heldu den arte–.

Halakorik ez da tokatzen Madrilen, eta PSE-EEK ez du norabidea aldatuko Espainiako hiriburuan horrelakorik erabaki arte. EAeko boto-emaile sozialistak ea noiz ohartzen diren siglen batailak hain itsuan funtzionatzen duela eta erabakien sorlekuari bost axola zaiola EAeko egunerokoa; pieza bat gehiago

da Sánchezen tableroan. Gauzak diren bezala: EAJ oso eroso dago PSE-EEekin, nahi duen bezala gobernatzen uzten dio, trukean sail batzuk emanda, eta bistan da PSE-EEK duela EH Bilduk gobernatzeko giltza. Eta hori ez da gertatuko gauzak aldatu arte. *La Vanguardia*-ko zuzendariak igandean zioen EH Bilduk 2028an gobernatuko duela.

Etxeko sofán balego bezala hitz egin duen Anduezak kanpaina bizia egin du, zenturioi bat sentitu da, eta funtsean, bere alderdiaren zentralitarentzat lan ona egin du, blindatu baita beste lau urtez EAJren eta PSE-EEren gobernu eta, aitortu behar zaio, 27.000 boto irabazi ditu. Pilota Kataluniara pasatzeko modu aproposa.

Gauza gutxi geratu dira argitzeko. Anduezak zer eskatuko dion Pradalesi, bereziki. Sail bat nahiko du berarentzat, beste bat Denis Itxasorentzat, eta orain arte izan dituen hiru sailez gain, laugarrenaren bila joango da. Ziurrenik, Sánchezek aginduta, lasai joango da; gauzak Madrilen ondo joateko. ●

# Gure gauzatxoak




UXUE APAOLAZA LARREA

**A**nduezak, eztabaidaren batean, zerbait esan zion Otxandianori pankartaren atzean ibiltzeaz. Okurrentziaz harro, espero ez zuen nonbaitetik hasi zitzaizkion erantzuten, ordea, emakume ahotsez, eta pentsatu gabe, “ez dizut zuri esan, Otxandianori esan diot” isildu nahi izan zuen: Gorrotxategiri jarri zitzaion jartzen zaigun neskato haserretu aurpegia “baina nik erantzun nahi dizut”. Amaitu da ezer esan ezin zen kanpaina. Hitz neurtuena. Hitz oso bakanena. Eta ibilbidea gogoan eman dugu botoa, isiltasunak ultzera.


Andueza bezalako tipo baten hautagaitzak lortu du bototan eta eserlekutan gora egitea. Kanpaina diseinatzeko orduan ez zen oztopo izan, gizartea prest dago horretarako. Ideiak ideia, inor ez beldurtzeko hautagaia behar zen, eta segurtasun sosegatu hori industriaz hitz egiten duten hiru gizonen ematen dutela erabaki dute. Horiek ez dira despistatzen, ez dira hasten bat-batean ulertzeko oso lausoak diren kontuek, deserosoak, nahasgarriak eta desbideratzaileak. Aurten argi eduki behar zen igogailuan zein gai aipa daitezkeen bizilaguna etxera lasai itzul dadin, eta zein inoiz ez, lehendik pentsatzen zuena baino gehiago pentsatu beharrik izan ez dezan. Ez legoke gaizki jakitea zein urbanizaziotako igogailua aukeratu duten zentroa markatzeko. Markatzeko nor den herri, “herriarrei interesatzen zaizkien gaiei buruz” hitz egin ahal izateko.

Hauteskunde gaueko eztabaida-mahai batean, ETBn, Eider Alkorta gogorarazi zuen abstentzioan geratzen direnen arteko talde mardul bat emakume helduena dela (40tik gora). Eztabaida nagusietan, gai-blokeak nahikoa zabalak izan dira talde bakoitzak nahi zuena esateko, eta inori, ezta eztabaida politikoa maila igotzera zetozenei ere (eta lortu omen dute), ez zitzairen aglutinatzailea iruditu zaintzen gaiari heltzea, edo indarkeria matxistaren biktimak aipatzea... Bazterrean botoren bat geldituta ere, kalkuluek esango zuten ez zirela beharrezkoak. “Jendeak ez du gehiago beldurtzerik behar” entzun diogu Otxandianori: auskalo nongo urbanizazioko igogailuko jendeak, dirudienek, gai sozialei dagokienez, ezin du Osakidetza baino askoz gehiago entzun beldurtu gabe. Eta zertarako hasi esaten proposatutako irtenbide ekonomiko guztiek hegoalde esplotatu bat behar dutela (Palestina galtzaileek aipatu zuten), zabor pixka bat bidaltzeko besterik ez bada, gure arropa josteko, ez dakit, marrubiak biltzeko. Izan ere, hegoalde horietatik iritsitakoek, ziur asko, botorik ezin dute eman, beraz, beraien alde egiteko modu onena, emakumeen kasuan bezala, ahotsik ez ematea da, igogailukoek, gero, gutxienez zerbait asistentzialista onar dezaten. Kanpainak, beraz, igogailuko tontoenak ulertzeko modukoak izan behar dute. Badugu lana hurrengo lau urteetan gure barruko tontoa aurkitzen.

Amaitu da kanpaina, esan daitezke gauza gehiago, baita “independentzia!” oihukatu ere, orain arteko mitinetan ez bezala. Eta, euforia momentuan, hauteskundeetako emaitzei hitzak jartzera igo ziren gizonak oholtzara: mikro aurrean Otxandiano eta Otegi, serpentinak, eta serpentina gehiago. Eta hitza hartu baino lehen, Etxebarrieta pasa da baso bana ur eramatera, eta Otegi txaketatik serpentinak kentzera. Zaila zait interpretatzen. ●




# Eusko Legebiltzarraren osaketa



Eserlekuak	2024	2020
<b>EAJ</b>	27 (-4)	349.960
<b>EH Bildu</b>	27 (+6)	249.580
<b>PSE-EE</b>	12 (+2)	122.248
<b>PP*</b>	7 (+1)	60.650
<b>Sumar</b>	1	(-)
<b>Podemos</b>	0 (-6)	72.113
<b>Vox</b>	1 (=)	17.569
<b>Abstentzioa</b>	% 37,48	% 49,22


\* PP eta Ciudadanos elkarrekin aurkeztu ziren 2020an.






# Araba

	2024	2020
<span style="color: #00A68F;">●</span> EH Bildu	44.652	30.934
<span style="color: #006400;">●</span> EAJ	40.939	40.067
<span style="color: #D62728;">●</span> PSE-EE	24.783	19.452
<span style="color: #1F77B4;">●</span> PP*	24.298	14.316
<span style="color: #90EE90;">●</span> VOX	5.623	4.734
<span style="color: #E91E63;">●</span> Sumar	5.603	(-)
<span style="color: #800080;">●</span> Podemos	3.644	10.092
Abstentzia	% 38,89	% 51




# Bizkaia

	2024	2020
<span style="color: #006400;">●</span> EAJ	222.092	200.339
<span style="color: #00A68F;">●</span> EH Bildu	160.782	112.619
<span style="color: #D62728;">●</span> PSE-EE	78.990	64.001
<span style="color: #1F77B4;">●</span> PP*	51.129	32.248
<span style="color: #E91E63;">●</span> Sumar	19.010	(-)
<span style="color: #800080;">●</span> Podemos	12.651	40.453
<span style="color: #90EE90;">●</span> VOX	10.651	8.815
Abstentzia	% 36,59	% 49,60



# Gipuzkoa

	2024	2020
<span style="color: #00A68F;">●</span> EH Bildu	136.301	106.027
<span style="color: #006400;">●</span> EAJ	107.523	109.554
<span style="color: #D62728;">●</span> PSE-EE	45.887	38.795
<span style="color: #1F77B4;">●</span> PP*	21.722	14.086
<span style="color: #E91E63;">●</span> Sumar	10.479	(-)
<span style="color: #800080;">●</span> Podemos	7.384	21.568
<span style="color: #90EE90;">●</span> VOX	5.122	4.020
Abstentzia	% 38,29	% 47,82



## Momentukoak eta luzera begirakoak



AINHOA ETXAIDE  
AMORRORTU

**G**aurko Euskal Herrian, beren proiektuaren mugak agerikoak direlako, helburu partidistak eta interes pribatuak gainetik jartzeak jarduera instituzionala gehiegi baldintzatu dielako, edota ezkerretik zentroa berenganatzeko helburuarekin esparru politiko sendoa eraikitzen ari den alternatiba dagoelako. Bata edo bestea izan, atzera jarraitzen du EAJk, aurrera berriz haizea bere alde duen EH Bilduk, hegemonia politikoaren lehian pausu sendoa emanez. Dena dela ere, estualditik onik atera da EAJ. Momentuari begiratuta baloratu dituzte euren emaitzak: hauteskundeak irabazi dituzte eta beraiena izango da Eusko Jaurlaritzan. EH Bilduk, berriz, epe luzera begiratu eta urrats ez urrats egiten ari den bidean kokatu ditu bereak. Irabazle ikusi du bere burua, ziklo berrirako helburuan estrategia egokiarekin ari direla erakusten baitute emaitzek.

Biak garaile, biek arrazoi eta lau urte aurretik estatus berria ekarri behar duen estatutua lortzeko, politika publikoen bidez zerbitzu publikoak indartzeko, esku hartze publikoari esker egitura ekonomikoa eraberritzeko, etxebizitza arazo nagusi izateari utzi eta bizi proiektu duin baterako giltza bihurtzeko. Momentuari begira bata, luzera begira bestea, legealdi berria hasi da, hor daude proposatutakoak eta horretan nor nagusituko den da kontua. Aliatuak behar dituzte biek, EAJk badu pozari ezin eutsirik ikusi genuen Andueza eta bere PSE-EE. Jaurlaritzaren osaketan beharrezkoa izango da, EAeko politiketan zer eta zenbat erabakiko duen Sabin Etxeak esango badu ere -Sánchezekin hitzartu oostean, seguruenik-.

EH Bilduren ikurra eskua luzatzea izan da kanpainan zehar; Ortuzarrek entzun dutela eta emaitzak aintzat hartuko dituela esan zuen atzo. Akaso hor erantzuna. Baina betiko Jaurlaritzaz ari gara, betiko ereduarekin eta betiko praktikarekin, betiko Ortuzar buru. Okertu naiteke, baina gauzak aldatzeko aliantzak alderdi izan gabe aldaketen eragile diren subjektu politikoetan daudela esango nuke nik, atzoko agertoki politikoak posible egin duten eragile horietan. ●

## Aldaketa mugatuak eta jarraikortasuna gobernuan



ASIER BLAS

**E**Ak alderdi biko sistema inperfektu bat du: EAJk eta EH Bilduk 27na jarleku atera dituzte, parlamentarien %72 eta botoen %68. Ezker soberanistak inoiz atera dituen emaitzarik hoberenak lortuko ditu, Gipuzkoa eta Araban lehen indarra izan da eta 345.000 boto inguru eskuratu ditu. Baina, aldeko olatua surfeatuta, gutxi-asko hori zen iragarri ziezaiokeen boto kopuru gutxienekoa: 2023ko Foru Hauteskundeetan ateratakoa baino 55 mila boto gehiago.

ARGIAN, hauteskunde egunean iragarri genuen bezala, partaidetza %60 ingurukoa izan balitz, EH Bilduk lortu duen babesa jarleku eta bototan garaipena lortzeko nahikoak izan zitezkeen, baina partaidetza %63ra gerturatu da. Horrek bototan EAJren garaipena esan nahi zuen, eta jarleketan EH Bilduk irabazi bazezakeen ere, azkenean ez du lortu, partaidetza desorekatua izan delako herrialdeen artean. Bizkaian egon da parte-hartze gehien, EAJ hobekien sustraitua dagoen herrialdean. Jeltzaleek Bilbo Handian oinarritu dute beraien garaipena, Bilbon bakarrik 27 mila botoko distantzia atera dio EH Bilduri, ia EAEn atera dion gutzia.

PSEren emaitzak ez dira hain onak kontuan hartzen badugu Espainiako Gobernuan daudela eta aurreko hauteskundeetan garaipena lortu zutela ia 300.000 botorekin. Bederatzi hilabete beranduago erdia besterik ez dute lortu, nahiz eta ezker konfederala ia desagertuta egon. Jarleku kopurua 2012an zituen hamaseietatik urrun dago. Baina, ikuspegi kualitatibotik, hauteskundeetako irabazle nagusietako bat izan da. Alderdi bi eta erdiko sistemetan hirugarren al-

derdiak gehiago osoa ematen du eta horrek botere handia ematen dio.

Eskuin espainolistak emaitzak hobetu ditu. PPK Espainiako olatua hartu eta jarleku bat gehiago eskuratu du zapore gazi-gozonekin, izan ere, Voxek bere ordezkariari eutsita PPK ez du eskuin unionistaren monopolioa izango.

**Gobernuak gehiago osoa berri duenez, EAJ eta PSE irabazle nagusiak dira. Hori baitzen hauteskundeetako borroka nagusia**

Elkarrekin-Podemos legebiltzarretik kanpo geratu da eta Sumarrek ozta-ozta diputatu bakarra lortu du. Bien artean %6 atera dute, elkarrekin aurkeztu izan balira hiru eta sei jarleku artean eskuratuko lituzkete, akaso nahikoa EAJ-PSEk gehiago osoa galtzeko. Hori baitzen hauteskundeetako borroka nagusia. Gobernuak gehiago osoa berri duenez, EAJ eta PSE irabazle nagusiak dira. Horrek ondorioak izango ditu koalizioaren joko logiketan. Jeltzaleek epe ertainean segurtatuta dute pibote nagusia izaten jarraitzea. Bien bitartean, EH Bilduk, hauteskunde ekologiarri begiratuta, sekulako emaitzak izan baditu ere, Eusko Legebiltzarrean maniobratzeko aukera gutxi izango du, ia bakarrik geratu baita ezkerrean. ●

## Sinesmenek ez dituzte mendiak mugitzen



MATI ITURRALDE

**44** urte geroago eta higadura handia izan arren, EAJk hauteskundeak irabazten jarraitzen du. Otxandianok ziklo politikoaren aldaketa iragarri zuen, baina momentuz gobernu osatzeko gehiengoak ez dira berrituko. Beharbada, EH Bilduk oraindik ez ditu ordaindu ezker abertzalearen zor guztiak.

Kanpainaren azken egunetan ETAre izuala agertu da eta, berriz ere, PSE-EEk “zoru etikoa” suspertu du EH Bildurekin edozein akordio baztertzeko. Anduezak seguruago ikusi du bere etorkizuna EAJren babespean. Madrilen ematen den konplexurik gabeko akordioa hemen, momentuz, ez da “etikoa”.

Hautagaien profilak izugarri landu dituzte, distortsiorik ez sortzeko. Zerrendaburuen gehiengo gizonak izan dira, 80ko hamarkadan jaiotakoak, unibertsitate tituluekin eta gizarte borroketan esperientzia gutxiarekin. Alderdi guztiek garbitu dituzte hautagaien motxilak, azken poltsikoa barne. Jokabide horiek memoria kolektiboaren ezabatze selektiboa bilatzen dute, alderdien ibilbideak berrabiarazten dira zerotik hasiko balira bezala. Aukera bakoitzaren fededunek beren aukeraturakoengan fedea mantendu behar dute, eta sinistu hobere-nak izango direla.

Seguru EAJri ez zaiola erraza izan zerrendetan ez sartzea alderdiko bezeroentzat edo ate birakarietako bidaiarientzat negozio onak lortu dituen inor. PSE-EEk ongi zaindu du gerra zikinaren defendatzaile amorratuak ez agertzea (Ramon Jaurerri, Ardanzaren panegirikoan bere loriazko minutua izan arren, iraganeko mamua besterik ez zen izan). EH Bilduk lortu du Espainiako terrorismoaren aurkako legeak zigortutako pertsona bakar bat ere ez agertzea boto-paperetan, nahiz eta horrek ia belaunaldi militante oso baten ezeztatzea ekarri.

Baina gure hautagaien komunikazio politikoa haratago joan da. Kanpainan gaiak ere oso neurtuak izan dira: Osakidetza, etxebizitza, zaintzak eta Ertzaintza. Enkantean bezala egin dituzte promesak, hori bai, ereduak ukitu gabe.

Krisialdi sakon baten atarian, inork ez du azaldu nola egin aurre etorkizunari, airean geratu dira galdera nagusiak. Merkato neoliberalak guztiaren jabe egin denean (osasuna, hezkuntza, etxebizitza, zaintza), nola ase pertsonen beharrak? Hiperkontsumismoa mantenduko dugu, beste herri batzuk esplotatuz? Lurraren babes eta kontsumo energetiko industrialaren dileman, non kokatuko gara? Emakumeok egiturazko indarkeria matxista jasaten jarraituko dugu, legea gure alde izanik ere? Nola lortuko dugu euskara izatea gure komunitateetan nagusi? Pertsona nagusiek non eta nola biziko dute haien bizitzaren amaiera datozen urteotan? Euskal jendartearen garapen digitalak humanismoa eta komunitarismoa desagerraraziko ditu? ●

## Aldaketak alderdi sistemaren lehian?



HARITZ GARMENDIA

**O**kerrik ezean, Imanol Pradales izango da lehendakari berria. Hala ere, PSE-EEren babes beharko du horretarako. Izan ere, berdinduta gelditu dira EH Bildu eta EAJ eserleku kopuruan. Hori pentsaezina zen duela gutxi arte. Zer aldatu da EAeko alderdi sistemaren egitura lehiakorrean?

1980az geroztik, EAeko alderdi sistema definitu izan da sistema plural polarizatu gisa. Honako hiru ezaugarri izan ditu.

Bat. Espainiako eta Frantziako estatuaren legitimitatea onartzen ez duen euskal alderdi bat (Ezker Abertzalea: sistemaren begietara “nazionalismo erradikala edota antisistema”).

Bi. Trantsizioa legitimatzearen truke erdigune politikoa okupatu duen euskal alderdi bat (EAJ: sistemaren begietara “nazionalismo moderatua”).

Hiru. Oposizioko alderdien artean gobernu alternatiboak eratzeko ezintasuna distantzia ideologikoa eraginda (Ezker Abertzalearen eta gainerakoen artean: EA, EB, PSE-EE, PP...).

Egitura hori izan da sistema autonomikoari “egonkortasuna” eman diona. Era berean, ordea, abertzaleen eta ezkerrekoen aliantzak oztopatu ditu ardatz nazionalen eta sozialean.

Noizbait izatekotan, Lizarra Garazi garaian egon zen auzitan aipatutako hezurdura lehiakorra. EAJ prest agertu zen erdigune politikotik mugitzeko, eta burujabetzarako bidean ezker abertzalearekin bide-orri bat adosteko. Prozesuak ez zuen aurrera egin. Saiakera ez zitzairen merke atera bi alderdiei: 2009ko hauteskundeetan Ezker Abertzalea legez kanporatua izan zen; EAJ gobernutik baztertu zuten PSE-EEk eta PPK.

2012tik EAJren apustu estrategikoa izan da PSE-EErekin aliantza egitea lehendakaritza ziurtatzeko (hau da, sistema plural polarizatuan alderdi “moderatua” izatea).

Ezker Abertzalearen estrategia izan da justu kontrakoa. Bere burua kokatu nahi izan du sistema plural polarizatuak ezartzen dizkion kategorioa eta dikotomietatik kanpo-sistema/antisistema; erradikal/moderatu-. Horretarako, EH Bildu koalizioa sortu zuen beste alderdi batzuekin batera. Berrikuntza horrek ahalbidetu dio gainerako alderdiekiko distantzia ideologikoa murriztea eta erdigune politikoaren disputan murgiltzea, betiere bere jatorriari uko egin gabe (horren lekuko 27 eserlekuak). Alabaina, EAJren eta PSE-EEren aliantzak mugatu egiten du EH Bilduk izan dezakeen eragin politikoa.

Horregatik guztiagatik, legegintzaldi hau mugarrira izan daiteke etorkizuneko alderdi sistemaren egitura lehiakorra finkatzeko. Gai izango ote da EH Bildu sistema plural polarizatuaren egungo inertziak hausteke, sistema plural moderatuan harrapatuta gelditu gabe? ●

# % 62,52

## PARTE-HARTZEA

2020ko hauteskundeetako baina 12 puntu handiagoa izan da, baina berezitasuna ez dago oraingo emaitzan, aurrekoan baizik, hauteskundeak pandemia betean egiteak eragin handia izan zuelako. 2016an %60,02koa izan zen eta 2012an %63,96koa.

# 8.197

Datorren ostiralean, hilaren 26an, zenbatuko dira atzerriko botoak: 8.197 boto. Oso gaitza izango da aldaketarik izatea, baina gertatzekotan PSEren kalterako izango litzateke, eserleku bat galdu baitezake Gipuzkoan: 3.540 boto iritsi dira eta EH Bilduk horietatik 1.360 lortu beharko lituzke. Bestea Bizkaian litzateke Sumarren alde, baina iritsitako 3.703 botoetatik 738 lortu beharko lituzke.



## GILTZA ARABAN: BOTOEN %3,71

Amaia Martínez izango da Voxeko parlamentaria Eusko Legebiltzarrean. Gipuzkoan eta Bizkaian ez da %2ra ere iristen, baina Araban %3,71 lortu du eta giltza horrekin sartuko da parlamentura (%3ko langa gaintitu behar da ezinbestean ordezkari izateko).



*“Ulertuko nuke PSE-EEK  
gehiago eskatzea gobernu  
berrian, beti egiten dute hori”*

**Itxaso Atutxa**

EAJ

## ehbildu

*“Duela lau urte EAJk 10 eserlekuko  
aldea atera digun, orain 0.  
Aldaketa martxan da eta  
geldieztina da”*

**Pello Otxandiano**

EH Bildu



*“Gure emaitza izugarriek  
indarretik negoziatzeko  
aukera ematen digute”  
[[Jaurlearitzaren osaketan]*

**Eneko Andueza**

PSE-EE



*“Mila eserleku aterata ere,  
buruan tiro egitea gaitzesten ez  
duena, doilor-habia izango da beti”*

**Alejandro Fernández**

PP

**Sumar**

*“Jaurlaritzaren eraketak  
alderdi aurrerakoien  
artekoa izan beharko luke”*

**Alba García**

Sumar

**VOX**

*“ETAk eta euskal  
alderdi separatistak  
irabazi dituzte  
hauteskundeak (...) Lur  
honen birkonkistari  
ekingo diogu”*

**Santiago Abascal**

Vox

**PODEMOS.**

*“Emaitza txarrak  
lortu ditugu eta  
hala aitortzen dugu.  
(...) Bizitzan jakin  
behar da irabazten  
eta galtzen ere bai”*

**Pilar Garrido**

Ahal Dugu-Aliantza Berdea

158-95-1

**EH BILDUREN  
KOLOREA NAGUSI**

Bototan EAJk EH Bilduk baino 28.819 boto gehiago ditu, baina udalerrika EH Bildu 158 udaletan da nagusi. EAJ 95ean eta PP 1ean. EAEko mapak EH Bilduren kolorea du nagusiki, baina oso deigarria da Gipuzkoa, non EH Bildu nagusi den 82 udaletan eta EAJ 7tan.

54-21

**LEGEbiltzarrik  
ABERTZALEENA**

Eguneroko gaiak eta arazo sozia-  
lak nazio auziaren oso aurretik  
ibili dira kanpainan zehar, baina  
hauteskunde hauek inoizko lege-  
biltzarre abertzaleena utzi dute:  
EAJren eta EH Bilduren botoak  
batuta 54 parlamentario, 75etik.  
40 legebiltzarkiderekin, haien bu-  
rua ezkertiarizat dutenak ere na-  
gusi dira: EH Bilduk 27, PSE-EEk 12  
eta Sumarrek 1.



**LAUDIO: 3.327**

Boto berdinketa egin dute Lau-  
dion EH Bilduk eta EAJk: 3.327  
boto. Barakaldon bigarren indarra  
EH Bildu lehenbiziz, eta Gipuz-  
koan Hernanin, Arrasaten, Eiba-  
rren, Erreterian eta herri handi  
gehienetan samur irabazi du, sal-  
bu eta Irunen, non EAJk 10 pun-  
tuko alde duen.

# MIGRAZIO ETA ASILO ITUNA: EUROPAAREN LEGATU KOLONIALISTA DENON BEGIEN BISTAN

Europar Batasunean berriki onartu den Migrazio Itunak, asko zaildu dizkie gauzak euren herrialdetik ihesi doazen eta asiloa eskatzen duten pertsonen. Eskuin muturraren tesiak ogi tartean irentsita, migratzaileentzako kontrol neurri zorrotzagoak onartu dituzte Estrasburgon, tartean biometrikoak. Aspalditik dugu teknologia horiek ezkututzen duten arrazakeriaren berri, baina ba al zenekien Europaren historia kolonial eta esklabistan dutela jatorria?

 URKO APAOLAZA AVILA

**Z**ortzi urtez aritu dira negoziatzen, baina orain presa zegoen, eta azken segunduan onartu dute Europako Parlamentuan Migrazio eta Asilo Ituna deitu dutena, ekaineko hauteskundeak ate joka direla. Apirilaren 10ean izan da, Estrasburgon, baina irakurlea alferrik saiaturako da EiTbren bilatzailean albistea aurkitzen, irrati telebista publikoak Ibaizabaleko itsasadarrarentzat baino ez zituen begiak eta kamerak egun horretan.

Begiak eta kamerak. Kamerak eta datuak. Horiek izango dira migratzaileak kontrolatzeko Europar Batasunak hemendik aurrera erabiliko duen erreminta nagusietarikoak. Aurpegiak ezagutzeko edo biometriari oinarrituriko sistemak, baina, zerikusi handia du historian zehar europar inperioek euren kolonietako jendeak markatu eta sailkatzeko moduekin, arrazakeriaren kontrako eta justizia sozialaren aldeko ekintzaileek salatu duten moduan. Baina goazen pausoz pauso.

Onartu berri den legedia oso zabala da, zortzi espediente eta hamar araudi ditu. Funtsean, itunak asilo eskariak onartu edo ukatzeko prozedura azkartuko du, kontrola areagotuko, eta migratzaileei Europan sartzeko baldintzak gogortuko dizkie.

Neurri nagusietako bat da hemendik aurrera kide diren herrialdeek migratzaileak ez hartzeko ordaindu ahal izango dutela. Giza eskubide bat bermatzeari uko egiteagatik ordaindu, alegia. "Elkartasun mekanismoa" deitu diote,

baina elkartasun hautazkoa: migratzaile gehiago hartu nahi ez duenak 20.000 euro ordainduko ditu ukatzen duen asilo eskaera bakoitzagatik, 30.000 eskaerako mugarekin.

Erridikulu bat da zifra hori, kontuan edukita batez beste urtean Europar Batasuneko herrialdeek milioi bat asilo eskari izaten dituztela. Gainera, datu horietan ez dira ageri Mediterraneoan eta Atlantikoan bidaiaria arriskutsuak egin eta sarritan itsasoan itota desagertzen diren pertsonak. Berriki jakin dugu *El País* egunkariak eskuratutako barne dokumentu baten bidez, Frontexek – Europako mugak matonismoz zaintzen dituen erakundeak– 40.000 lagun kanporatu zituela 2023an, inoizko kopururik handiena.

Beste arau batek aukera emango du mugak behin behinean ixteko migratzaileei, haien joan-etorria "instrumentalizatzen" bada. 2021eko udazkenean Bielorrusiatik dozenaka milaka pertsona saiatu ziren Europar Batasunera sartzeko, Polonia, Lituania eta Letoniako mugetan barrena. Herrialde horiek "gera hibrido" moduan hartu zuten Alexander Lukashenkoren gobernuaren jokatzea, eta giza eskubideen kontrakoak diren kilometro askotako harresiak eraikitzeaz gain, kanporatze ilegalak ere egin dituzte geroztik. Orain, hori guztia legalizatuko dute.

"Arratsaldeko 17:00etan, normalean turistentzat izaten den gonbidatuen palakoa lehertzeaz dago: 'Itun honek hil egiten du, bozkatu ez!' oihukatu dute hainbat

aktibistek, sesioa geldituta". Kanpoaldean ere jende ugari protestan ari da. *Mediapart* atarian irakur dezakegu Estrasburgoko eztabaida luzearen kronika, Ludovic Lamant kazetari frantziarraren eskutik: "*UE: le Parlement adopte dans la douleur un pacte migratoire controversé*" (EB: Parlamentuak minez onartu du migrazio itun polemikoa).

Salbuespenak albuespen, talde nagusiek ahapeka onartu dute legedia: kontserbadoreek, liberalek, sozialdemokratek, baita sozialistek ere. Diote, erdi lotsatuta, hobe dela hori, ekainetik aurrera neofaxistek euroganberara ekarri lezaketen baino... Baina Giorgia Meloniren Fratelli d'Italia alderdiaren ildokoek eta beste batzuek ere alde bozkatu dute. Eta neurri murriztaileenetako baten txostenegilea, berriz, Vox alderdi neofrankistako Jorge Buxadé dela gogorarazi du Laman tek. Azken batean, araudiak eskuin muturraren ideietako asko bere egiten ditu, migrazio "ordenatu" baten aitzakiapean.

## GORPUTZAK PASAPORTE, ATZOKO ETA GAURKO ESKLABOETAN

Buxadéren txostenari baietz esanda, Eurodac datu basea erreformatuko da. Hogei urte dituen hatz marken datu base horri aldaketa "tekniko" batzuk egingo dizkiote, baina ez dira aldaketa xaloak baxterre: hemendik aurrera posible izango da hatz markekin ez ezik biometriaren bidez familia osoak kontrolatzea, baita sei urteko haurrak ere. Lamantek dio kontrol sistema hori ez dela ezerezetik atera, eta bozketa baino egun batzuk lehenago

Apirilaren 10ean Migrazio eta Asiloari buruzko bozketa egin zen Europako Parlamentuan, Estrasburgon.



EUROPAKO PARLAMENTUA / D. L.

*EuObserver* aldizkarian irakurritako iritzirik artikulu dakar gogora.

Laurence Meyer eta Chloé Berthélémy arrazakeriaren kontrako eta justizia sozialaren zein giza eskubideen aldeko aktibistek idatzia, "*The colonial biometric legacy at heart of new EU asylum system*" (Legatu kolonial biometrikoa, EBren asilo sistemaren erdigunean) izena du artikulua eta, besteak beste *La Marea* egunkarian ere irakurri daitezke gaztelaniaz.

Egileek diote existitzen den zainketa-teknologia zitalena erabiliko dela "pertsona migratzaileen gorputzen eta mugimenduen gaineko kontrol erabatekoa" ezartzeko. Azken batean, arrazializaturiko pertsonen gorputza "pasaporte" bilakatuko dute. Biometriarekin, pertsonen ezaugarri biologikoen eta fisikoen inguruko datuak bilduko dira: hatz markak hartzea, aurpegiaren irudiak egitea edo begietako irisak eskaneatzea dira modu ohikoena.

Ikuspuntu historiko batetik, biztanleria kontrolatzeko eta dominatzeko funtsezko mekanismoa izan da norbanakoen identifikazioa, eta ez gaitu harritu behar orain Europar Batasunak biometria jarri izana bere mugak gordetzeko sistemaren oinarrian. Azken batean, Meyer eta Berthélémyren arabera, "zainketa-biometrikoaren jatorria pertsona talde batzuegan izan den abusu eta diskriminazio praktika kolonialetan dago".

Atlantikoan zehar esklaboekin egiten zen merkataritzak, eskala global batean garatu zituen Afrikan bahitu eta jabetza pribatu bihurturiko gizakiak markatzeko eta ihes egindakoei aztarna jarraitzeko teknikak. *Dark Matters* (Iluntasunak inporta du) liburuan Simone Browne soziologo estatubatuarra kontatzen du esklabo beltzen bijilantzia eta kontra-bijilantzia norainokoa zen. Hortik dator *Run, nigger, run!* eta antzeko abesti

ezagunak, esklaboek abisua pasa eta patruiletatik ihes egiteko balio zutenak.

Baina zainketa-sistema sofistikatuak joan zen. Alphonse Bertillon polizia frantziarrak 1880an gaizkileak identifikatzeko asmatutako metodo antropometrikoak aurpegiaren deskribapen zehatzak egitea, hatz markak tintaz bustitzea eta argazkiak erabiltzea- Frantziako inperioaren kolonietan hasi ziren erabiltzen, batez ere Aljerian, non jatorrizko identitateak zapaltzeko probestu zituzten halakoak. Britainiar Inperioak gauza bera egin zuen Indian, erregistro biometrikoen programa erraldoi baten bidez migratzaile txinatarrak eta langile indiarak bereizteko.

Bi ekintzaileek garbi dute, nolako zurratik halako ezpala: "Eurodac-en erreformarekin, datu biometrikoen bidez lorturiko errefuxiatu eta migratzaileen identifikazioa masibo eta ohikoa, Europar Batasunaren asilo sistemaren zutabe inhumanoa bihurtuko da". ●



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

[zinkunegioptika.com](http://zinkunegioptika.com)



# Iñaki Soto

ERREDAKZIOKO KAZETARITZA ARDATZ



## GURE HERRIAREN ETORKIZUNA ETA HIZKUNTZARENA BATERA JOANGO DIRA



25 urte beteko ditu aurten *Gara* egunkariak. Ez da erraz izan. Teknologia ekarritako iraultzari neurria hartuagatik ere, Espainiako auzitegietako epaileek erabakitako oztopo arbitrarioek egunean eguneko jarduna baldintzatu dute. Mirari hutsa, Iñaki Soto zuzendariaren hitzetan, mundua aldatzeko errealitateak erakusten.

MIEL. A. ELUSTONDO ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

### 25 urte beteko ditu aurten *Gara*-k. Handia da, gero!

Mirakulua da gu bizirik egotea. Inork espero ez zuen landarea gaituzu, testu-liburuetan agertzen den espezie arraroa, desagertzera doana. Hala ere, 25 urte eta gero, testu liburuetan ez ezik, gu kalean gaude egunero, bizirik, eta hori ospatzekoa da, zalantzarik gabe. Horrek ez du esan nahi, ordea, oraindik hedabide "arraro" bat izaten jarraitzen ez dugula. Oso inguru konplikatuan ari gara lanean. Batetik, hedabideen mundua bera dugu konplikatua; bestetik, Euskal Herri zahar-berri hau, eta bertan izan dugun bilakabidea. Mirakulu hutsa da egunkari bat publikatzea.

**Are mirakulu handiagoa Espainiatik heldutako haizeak kontuan harturik: 2000. urtean, Baltasar Garzón epaileak emandako autoak Orain-Egin eta EKHE-Gara taldeen arteko enpresa segida zegoela erabaki zuen, eta, ondoren, lehenak Gizarte Segurantzarekin zeukan zorra bigarrenari ordainarazi zion. Horrek ez dizue lagundu...**

Horrek, batez ere, gure lehiatzeko aukerak baldintzatu ditu. Horixe da larriena, nire ustez. Aukera berdintasunik ez da egon. Lehenik, itxi egin gintuzten [*Egin* egunkaria], eta, harrezkero, hamasei urte zaintzapean eduki gaituzte, egoera gutiz anomaloan. Uste dut Espainiako

Estatu osoan gure antzeko beste kasu bat dagoela, Andaluzian, non ontzigitza enpresa batek apokeriaren bat-edo egin zuen. Bestela, Europa osoan ez dago gurea bezalako kasurik: hamasei urtez baldintzapeko askatasunean egon den hedabiderik ez dago. Errepresioari dagokionez, *Gara* bezalako fenomenorik hedabideen historian ez dut ezagutzen.

### Lehiatzeko aukerak baldintzatu dizkizutela esan duzu.

Bai, errepresio horrek publizitatea, laguntzak eta gauza asko baldintzatu dizkigulako. Hamasei urte horietan, baja luzeak izan dituzten lankideak pultsuan ordezkatu behar izan ditugu, ez bai-





# Iñaki Soto Nolasko

IRUÑEA, 1975



*Gara* egunkariaren zuzendaria da 2011z gero. Iruñeko udal ikastolako ikasle izan zen, eta gogoan du garai hura, ezberdinez osatutako ikasgelako giroa eta beste. Filosofia ikasketak egina, unibertsitatetik kazetaritzara –*Gara*-ko zuzendari-tzara, alegia–, egin zuen, eta bertan da harrezkero, erredakzioko lana oinarri, egunero egunerokoa idatziz edota irakurriz, baina begirada herri honen etorkizunean jarrita.

keneukan edozein enpresak jaso ohi duen laguntzarik; Espainiako auzitegien ebazpenagatik, alegia. Gizarte Segurantzarekin hiru milioi eta erdi euro ordaintzeko akordioa egin genuenean, esanez sei hilabetero milioi erdia ordainduko genuela, uste dut askok apustua galdu zutela, pentsatuz ez ginela gai izango dirutza hori ordaintzeko. Hortaz, ospatzekorik badugu, bai horixe!

## Zer esan behar du *Gara*-ren zuzendariak Egin-i buruz?

Nik ezin dut haien izenean hitz egin. Salu [Javier Salutregi] izan genuen azken zuzendari, eta begiratu zer tratua eman zioten, nolako mendekua hartu zuten, bateko epaiketa eta besteko kartzela. Okerrena, hala ere, hari ofizioa lapurtzea izan zen. Ez naiz inor haren izenean hitz egiteko, pudorea ematen dit. Hori esanda, esango dut *Gara* tradizio baten bigarren edo hirugarren atal bat dela. Tradizio hori eraiki egin da: Francoren heriotzaren aurretik hasi zen eraikitzen, eta eraikitzen segitu genuen ondoren ere. Uste dut herri honetan badugula pul-tsu sozial bat oso berezia, eta pul-tsu hori hortxe dagoela oraindik.

## *Gara*-ren printzipio fundazioaletan irakurri, eta gatazka gainditzeko helburua aipatzen da. Urratsik egin dela ez da dudarik.

Historikoki ezagutu dugun gatazka hori eraldatu egin da. Hein horretan, gainditu da, baina, hala ere, gatazka, egon, hor dago oraindik. Labur esanda, hemen lehen eta bigarren mailako herritarrak ditugu. Ziur asko, jendarte guztietan gertatzen da hori: genero arrakala da, edo klase borroka, edo besterik. Hemen lehen eta bigarren mailako herritarrak egotea ez da gure herri honen ondare eksklusiboa. Hala ere, gure herriaren ezaugarria da batusuek beren proiektu politikoa konstituzionalki blindatua daukatela, eta beste batusuek, aldiz, konstituzionalki debekatua daukagula. Hortaz, gure eta haien bozkek ez dute berdina balio, zentzu horretan dira haiek lehen mailako herritar eta gu, aldiz, bigarren mailakoak.

## Gatazka gainditzeko bidean, bestelako fase bat dugu 2012az gero...

Bai, erabaki genuen bazela garaia bes-

te era batera lan egiteko, eta horrek gatazkaren fase historikoaren aldaketa ekarri duela uste dut. Baina hortxe duzu beti gure egunkariaren azala: 140 preso ditugu oraindik, 2024. urtean! Hamarkada baino gehiago igaro da [ETAk armak betiko utzi zituenetik], eta horretan gaude oraindik. Eta editorial hartan esaten genuen bezala, herri aske bat presorik gabeko herria da, eta hori oraindik ez dugu lortu. Gatazkaren ondorioak hor diren bitartean, guk funtzio bat izaten jarraituko dugu. Eta, hala ere, gure helburua ez da izan behar borrokatzea, garaipena lortzea baizik, eta, horretarako, gehiengo zabalak lortu behar dituzu, eta eskaintza sozial, politiko, ekonomiko eta kultural indartsua egin.

## Zein hizkuntzatan lortu behar da garaipena? Hitz lauz esanda, zein hizkuntzatan jardun behar du *Gara*-k?

Jendeak hitz egiten duen hizkuntzatan. Egitura administratiboen arabera sortu dira hemengo egunkariak. Bate-tik, gobernuen hedabideak; bestetik, berriz, hizkuntza irizpidearen arabera lan egiten duen egunkaria. Gurea animalia mitologiko bat da, euskal herritarra, eta horiek, gutxienez hiru hizkuntza hitz egiten dituzte. Eta esango nuke laugarren eta bosgarren hizkuntzak ere ekuazioan sartu beharko genituzkeela. Jakina, hizkuntza horien egoera ez da bat eta bera eta berdina. Guk badugu, beraz, asmo politiko bat, termino errealean egituratu behar dena, zeren, bestela, gerta liteke gu pozik egotea, baina gure asmo politikoentzat hori kaltegarria izatea.

## Kaltegarria litzateke *Gara*-k euskara egunero erabiltzea?

Ez. Kaltegarria da ez erabakitzea nola indartu gure egiturak, gure helburuak lortu ahal izateko. Eta kaltegarria da, era berean, afera horren irakurketa moralista egitea. Gure helburua da euskara zabaltzea, indartzea, eta, horretarako, gure politikak ebaluatzea dagokigu. Esate baterako, zein da AEKren hartzailea?... Erdalduna! Nola zuzendu behar zaio AEK bere hartzaileari, AEKn izena eman dezan eta euskaldundu dadin? Erdaraz. Bestela ez dio ulertuko! Horixe gertatzen da gainerako maila guztietan ere. Bai, joan zintezke Gasteizera, adibidez, eta mitina egin hauteskunde kanpaina ba-



ten barruan: “Gu euskaldunak gara, eta ez dugu euskaraz baizik hitz egingo!”. Baina, kasu horretan, ez zara jendeari bozka eskatzen ari, jendeari euskaraz jakitea eskatzen ari zara. Nik ez dut euskarari buruzko irakurketa moralistarik egin nahi.

### Zer da “irakurketa moralista”?

Nik, neure ibilbide periodistikoan, gehien-gehiena euskaraz egin dut, bai irratian, bai egunkarian neure izenez sinatu ditudan artikuluetan. Editorialak ere egin behar izaten ditut, eta horiek gaztelaniaz egin ditut gehienak. Baina esan dizut, neure sinadura daramaten testurik gehienak euskaraz ikusiko dituzu. Baina *Gara* ez dago nire gogo partikularrei lotuta, ez dago nik nahiko nukeen munduari begira. Ez gara kibutz batean bizi, herri bat ez da kibutz bat. Herriaren alde lan egiteak ardura eskatzen du, arduraz jokatzeko eskatzen dit, ez neure gogoak asetzea. Nire gogo partikularra ezin da egon herri honen errealitatetik aparte. [Arnaldo] Otegi esan zuen bezala, efikazak izan behar gara.

### Zer diozu, beraz, euskarazko hedabideen gainean?

Pentsa zenbat energia eta diru inbertitzen ditugun, eta zenbateko esfortzua egiten dugun ETB1en, Euskadi Irratian, Berria-n... Euskaraz egiteagatik dirua jasotzen du *Gara*-k, jasotzen du *Berria*-k, jasotzen du ARGIAk eta beste ha maika hedabidek. Hortxe dago inbertsioa, eta, ziur asko, inbertsio handiagoa egin beharko litzateke. Baina, agian, egiten ditugun balantzeak ez dira zuzenak, beste era batera jokatu beharko genuke beharbada. Esfortzua egiten dela dudarik ez daukat, eta, hala ere, uste dut esfortzu horren emaitzak zein diren azertu beharko genukeela. Euskararen alde lan egiteko elebakarrak izan behar dugu?

### Bai eta ez.

Adibidez, arnasmuneetan bai, baina gu ez gara arnasmune batean bizi. Gu herri baten egunkaria gara, non hiru hizkuntza ere hitz egiten diren. Ipar Euskal Herriko hedabideak beren erabakiz eta modu autonomoan paratu direnean, frantsesez paratu dira: eta gure bultzadaz, euska-

“**Gure helburua ez da izan behar borrokatzea, garaipena lortzea baizik, eta, horretarako, gehiengo zabalak lortu behar dituzu**”



## ALTERNANTZIA (I)

“EAJk, edo [Joseba] Egibarrek eta [Xabier] Barandiaranek, esaten zuten egun batean ezker abertzaleak hauteskundeak irabaziko zituela, eta hori normaltasunez hartu behar zela. Alternantzia eskema zuten buruan, alegia. Horixe gertatzen da herri normalean. Baina Gipuzkoan alternantzia gauzatu zenean, EAJ ohartu zen boterea lortzeko modurik onena boterean bertan egotea dela, boterea ez uztea...”

## ALTERNANTZIA (II)

“(…) Eta horixe gertatzen da Gipuzkoan: agintzeko mandatua jaso duenak ez du gobernatzen, gutxiengoak beto eskubidea due-lako. Alternantziarik ez badago, gutxienez alternatibak asmatu behar dira. Iruditzen zait egokera nahiko larria dela, momentu historikoa bizi dugula, eta herrialdeari buruzko debateak egin behar ditugula, adostasunetara heltzeko. Baina botere tradizionalek beldur handia diote ez bakarrik alternatibari, baizik eta alternantziari berari”.

### Azken hitza

## ERREDAKZIOKO KAZETARIA

“Oso kritikoa naiz kazetariaren irudi erromantiko-epikoarekin. Niri erredakzioa ardatz duen kazetaritza gustatzen zait, talde-lana. Gerrako berriemaileak ikusten ditugu, baina ez haiek lan egin ahal izateko atzean duten lankide mordoa. Erredakzioko kazetari kultura gustatzen zait, eta ez gerrako kazetariaren irudi maskulino, epiko eta salbatzailea. Kazetaritza idatzia gustatzen zait, eta ondo idazten duten kazetariak, eta badira horrelakoak”.

raz ere bai. Beraz, uste dut badela garaia aurreiritziak alboratzeko, premisa faltsuak baztertzeko, eta benetako analisia egiteko egin denaren eta egin ez denaren inguruan. Guk Naiz irratia egiten dugu, euskararen presentzia handia duena, kontsumitzailea ere gaztea delako eta euskaraz dakielako; *Gaur 8* astekaria, berdin, euskaraz egiten dugu; bidaiei buruzko hilabetekaria, soilik euskaraz; telebista batean ere parte hartzen dugu, euskaraz...



### Hori zeure alde...

Egin dezagun debate politikoa, premisa faltsurik erabili gabe, eta aztertu ditzagun datuak eta, ondoren, ebaluatu dezagun egin duguna, hil ala bizikoa delako, gure hizkuntzak arriskuan egoten jarraitzen duelako, eta gure herria ere arriskuan dagoelako. Hortaz, gure ikuspegian, historikoki, gure herriaren etorkizuna eta hizkuntzaren etorkizuna batera joango dira, ez derrigorrez aldi berean, baina bai batera, eta ezin da bata bestea gabe salbatu. Agian, tesi politiko okerra darabil, baina guk horrela ikusten dugu auzia, uste horretan gaude, eta horren arabera

jokatzen dugu. Nire uste pertsonala da, bestalde, gure herria ez dela sekula elebakarra izango. Orduan, "...eta kito!", gutxi. "...ala hil!", hobe ez. Ahal baldin bada, bizi; eta ahal baldin bada, luzaz bizi.

### Zer diozu publizitate instituzionalaz, eta publizitate instituzional horretatik datorren dirua banatzeko moduaz?

Publizitate instituzionalak bizirauten laguntzen du, eta horixe da tragedia. "Audientzia" da irizpidea, baina herri bateko biztanleak udal igerilekuan bainatzen badira, eta egun batean soroslerik ez bada, herri horretako biztanle guztiek jaso beharko dute informazioa, ezta? Ez, bakarrik, egunkari jakin bat irakurtzen dutenek. Publizitate instituzionalaren helburuak bikoitza izan behar du: alde batetik, herritarrek informatu behar ditu -herritar denak, ez bakarrik egunkari jakin batzuk irakurtzen dituztenak-, eta, bestetik, sektorean berdintasuna sustatzen ahalegindu behar da. Administrazioaren helburuetako bat izan behar du prentsa aniztasuna sustatzea, eta merkatu libre -"publiko-pribatua" eta diskurtso zera hori dena-, baina hori gure sektorean ez da betetzen.

### 2011n Gara-ren zuzendari izendatu zintuztenean hainbestekoa zen papereko egunkariaren kontsumoa. Gaur egun, inor ez duzu ikusten egunkaria besapean hartuta.

Aberri Egunean, Iruñeko manifestazioan, neu nintzen egunkaria zeraman bakarrenetakoa. *Gara*-ren zuzendaria naiz, nire *outfit*-aren parte da egunkaria eramatea. Askotan entzuten dut: "Nik sakelakoan irakurtzen dut egunkaria". Barkatu, baina ez dut sinesten. Edo sinesten dut, horrela da, baina ezin genezake pentsatu sakelakoan egiten

den irakurketak paperean egiten denaren eduki edo kalitate bera duenik. Sakelakoan irakurtzeko modu horrek gure eztabaida publikoari eragiten dio, eta gure tertuliari, gure etxeko harremanei, belaunaldien arteko konbertsazioari, lerroburuen arabera ezin baita ganoraz eztabaidatu. Irakurtzeko modu horrek ondorio sakonak dauzka, eta ezin dugu hori aztertu duela 30 urteko parametroak erabiliz.

### Zertan da kazetaritzaren inportantzia gaur egun?

Uste dut kazetaritzaren funtzio nagusietakoa dela boterearen kontrol lana egitea. Baina botereari ez zaio gustatzen kazetaritzaren kontrol hori. Boterearen kontrakoa da kazetaritza, kazetaria alden du egiten da kontrola hain inportantea duten instituzio, egitura eta makroegituretatik. Hori da kazetari batzuek egiten dutena, zeren beste batzuek jauntxoaren memoriak idatzi besterik ez baitute egiten. Bietarik dauzkagu: batetik, Pablo González bezalakoak, kartzelan, kazetaritza egiteagatik, eta, bestetik, aldiz, gortearen kronistak: "Atzo [EAEko] lehendakaria txakurrarekin paseatzera irten zen, eta emazteari musu eman zion kopetan...".

### Adiskideak egiten zu, orain ere...

Bai, bada! Beste batzuek juzgatu beharko dute nire lana, eta nolako zuzendaria izan naizen esan, baina politikariak epaitzea ere bada gure lana, eta Urkullu oso lehendakari txarra izan dela uste dut, zalantzarik gabe. Askotan esaten dit gure amak: "A ze garaia tokatu zaizun zuzendaria izateko!". Eta egia da: zuzendari izendatu nindutenean, artean gatazka bete-betean geunden; kontatu dugu Arnaldo Otegiaren atxilotzea eta ondoko prozesua, [Espainiako] Audientzia Nazionala eta beste; Cabacas auzia ezagutu genuen, eta epailearen aurrea eraman gintuzten informazio hura emateagatik; armagabetzea dela-eta, Baionan izan ginen, sinatzaileen artean zen *Gara*, armagabetze haren kargu egiten... Garai ikaragarria bizi izan dugu: feminismoaren iraultza, pandemia, krisi ekonomikoak bata bestearen atzetik, belaunaldi arrakala... Garai intentsuak, guttiz, eta emankorrak. Eta, aldiz, lehendakaria txakurra paseatzen eta andreari kopetan musu ematen. Ez dago eskubiderik. ●



# Iritziak

## Gernikaren berpiztea



**KARMELO LANDA**  
HISTORIALARIA

**U**rte bat bestearen ondotik, 87 urte joan dira astelehen lazgarri hartatik, apirilaren 26 hartatik; azoka eguna Gernikan, heriotza eguna. Suzko eta berunezko egunak eta urteak ondoren. Hildako ugariren gainean porlana eta isiltasuna. Porrota eta sufrikarioa. Nortasun debekatua, zapaldua, ukatua.

Noiz loratu Gernika berriro? Oroitzen naiz basakeriatik 50 urte joan zirenean, loraldia saiatu genuela. "Gernika 37-87". Picassoren margolanean, itzal aldean, gris-ilunetan agertzen den hegal hautsiko usoa hautatu genuen. Bakearen uso erdi-hila. Bizitza berria eman genion, ortzadarraren koloretan, pizkundearen sinbolo, *ave fenix* betierekoa. Gerraren hautsetatik berpizten den Gernika-Euskal Herria. Egia berreskuratu eta mundu osoko historialari onenak Gernikara ekarri (Southword, Vilar, Viñas, Tuñon de Lara, Irujo...). Bakearen eta autodeterminazioaren aldeko nazioarteko kongresua. Uneko artista eta kantari bikainenak. Euskal gazteria uholdean. Gernika jarri genuen etorkizuneko Euskal Herri libreria begira.

Baina orduan ere bide hori trabatzeko koalizioa eratu zuten. Gernikako alkate jeltzalea zen Zuzaetak eta Ardantza-Jauregi (EAJ-PSOE) koalizio gobernuak ahaleginak eta bi egin zituzten Gernikako loraldi hura zapuzteko, egun

Zertarako egiten dira koalizioak eta aliantzak? Euskal Herriak behar duen independentzia eta Euskal Errepublika lortzeko bidean egiten dira?

seinalatu haietan Ertzaintzaren "beltzak" milaka gazte jipoitzera bidalita Gernika erdira, adibidez.

Joan dira ordutik urteak eta egin dira hamaikaxo saio, deitu Lizarra-Garazi, deitu Loiola edo Aiete, Luhuso edo Baiona, eta euskal herritarrok jarraitzen dugu Euskal Herri libre, modu batean edo bestean, aldarrikatzen. Gurari sakon horren seinale eta agerpen dira, adibidez, azken Korrikaren indarra, euskal lurralde osoan eta bereziki Baionako amaieran. Kirol gertaera nagusietan ere agertu da euskal nortasunaren nahia, Bilbon *Athletiar*en garaipenaren ondoren bezala. Mendebaldeko hiru herrialdeetako hauteskundearen emaitzetan nabarmentzen den moduan. Eta datorren maiatzaren 12an Senpereko Herri Urratsen berriro agertuko dena.


Puntu honetara helduta, galdera larria egin behar dugu: zertan dabilta Euskal Herriko alderdi politikoak eta instituzioak? Laguntzen dute euskal herritarren gurari sakon hori gauzaten, Euskal Herri libreria daraman bidea zabaltzen, abiatzen, ibiltzen? Zertarako egiten dira, orain eta hemen, koalizioak eta aliantzak? Euskal Herriak behar duen independentzia eta Euskal Errepublika lortzeko bidean egiten dira?

Euskal naziogintza da, Euskal Herri osoa aintzat hartuta, eginbehar nagusia, eta ez da helburu abstraktua, eginkizun oso zehatzak ditugulako orain bertan.

Zertarako elkartu, zer koalizio egin eta nolako aliantzak? Honetarako, hara: Euskara Lege berri eguneratuak lortu legebiltzar eta instituzio guztietan, eta euskara egin erakunde horien hizkuntza nagusi. Nafarroako eta EAeko gobernuen arteko hitzarmen politikoak sinatu, eta Euskal Hirigune Elkargoarekin, elkarlana. Bote-re judicial propioa antolatu lurralde guztietan. Euskal Herri osorako Ikus-entzuzkoen Kontseilua eratu. Euskal Herri osoko alderdi abertzaleen arteko elkarlana lehenetsi nazio-akordio eta aliantza guztietan. Lizarra-Garazi akordioak eredu hartuta, autodeterminaziorako bideak zabaltu, Euskal Errepublika lortzeko bide-orri zehatza partekatu.

Euskal Herria da gure territorio libre posible bakarra. Bertan berpiztuko ditugu gure Gernika guztiak. ●

# Hitzen piroteknia



DOM CAMPISTRON



**KOLDO ALDALUR HIRIGOIEN**  
KAZETARIA

**G**arai batean nire ustez naftalinaz gainezka zeuden esaldiak erabiltzen hasia naizela antzeman dut. Zahartzen ari naizen seinale ote? “Osasuna badugu behintzat-eta, gustura egoteko moduan gaude!” edo “gure garaian jan ez, baina barre...”. Eta tristuraz betetako horrelakoak.

Dena den, horien artean bada bat oso gustuko dudana: “Gauza txikiei garrantzia ematea da zoriontsu bizitzeko sekretua”.

Bada urte erdia lana utzi nuela. Azken urteetan zientoka bat elkarrizketa eta tertulia entzun behar izan ditut. Seko aspertzeraino.

Sasi-listoz inguratuta eman ditut laneako arratsalde asko, eta nire lagun on baten esaldia burura etorri ohi zait garai horietaz akordatzean: “Lelo xamarra izateko ez dago unibertsitatera joan beharrik”.

Sasi-listoa genero saiatua da. Berdin zaio Ukrainaz edo Palestinaz galdetzen badiozu, tomatea noiz landatu behar den edo Kubo jokalaria egokiagoa den

ezkerretik edo eskuinetik jokatzeko, tindatzeak kalte handia egiten dion ileari edo Txina eta Taiwanen arteko liskarrak Munduko Hirugarren Gerrara garamatzen. Eltze guztietarako tapa prest du. Galde iezaiozue, esate baterako, egoera politikoari buruz, eta ordu batzuk lehenago beste komunikabide batean entzundakoak dotore botako dizkizue bere baratzean udaberrian landutako ideia distiratsuak balira bezala ahotan darabiltzanak.

Hitzen prostituzioa eta onanismo intelektuala, seguruenik. Nonbaiten entzundako hiru hitz ajaturi hautsak kendu, suhartasun dosia gehitu eta ideiak egiazkoak bihurtzen dira engainatua izan nahi duena asetzeko.

Duintasunaren galbahea pasatuko ez luketen hitzak, hutsak, ezkutukoak. Hitzen piroteknia: segundo gutxitan kolore eta zarata handia egiten dutenak. Eta gero, bolbora usaina besterik ez.

Baina oraingo egoera honek badu bere alde ona. Dena ezin ba beltza izan!

Bere garaian, lanean, ustez, inongo garrantzirik ez zeukaten berriketaldi txiki haiek –mikro-erlazioak, alegia– nire barrua asetzen zutela ere ohartu naiz. Hortik gauza txikien garrantziarena.

Enpatia lantzeko harremanik egokienak dira txiki horiek. Jakin arren aurrean duzunak diotenak ez duela mundua aldatuko, bere mundua antolatzeko beharrezkoak dituela ohartzen zarenean, bere eta zure egoeraz jabetzen saiatzen ari zara. Eta, horrela, enpatiaren goxotasunak hartzen zaitu, eta, ondorioz, zu zeu izaten ere laguntzen dizu. Elkarrekin harreman etengabea moldatzeko sortuak gara.

Arazoa da aurrean dugunak esan nahi digunari belarria jartzea ez dela hain erraza. Horregatik, dentistek egiten digutena egiten dugu geuk ere sarri. Bakarriketa amaigabea jarraitu, pentsatuz aurrekoa menpean dugula ezin digulako erantzunik eman. Egiari zor, ahoa tuboz josita izanda, ez da erraza. Beraz, guk beti arrazoi. ●



**AHOZTAR ZELAIETA**  
KAZETARIA

## EAJko karguen senide harrobia

**A**zken hamarkadan, EAJk hiru harrobitatik datozen kargu publikoen esku utzi du Eusko Jaurlaritzako sailen kudeaketa. PwC eta Andersen bezalako aholkularitza-enpresetan aritu zen talde bat nabarmentzen da. Beste talde garrantzitsu bat karrerako funtzionarioek osatzen dute. Hirugarren talde baten parte dira burukideak, udal edo foru kargu publiko ohiak, hauteskunde zerrendetako hautagaiak eta haien senideak.

Aspalditik ari dira administrazioan alderdiaren barne-egiturako kideen senideak. Arzalluz EAJko presidente historikoaren seme Asier Arzalluz Bizkaiko Txakolina arautzeko kontseiluko lehendakari izendatu zuten, eta bere emaztea, Isabel Octavio, gaur egun EITBko Komunikazio zuzendaria, Osasun Sailaren Kabineteko zuzendaria izan zen.

Joseba Aurrekoetxea EAJren antolamendu-idazkariaren alaba bat hautatu dute Bilboko Portuan postu baterako. Asier Atutxa burukide ohi, Jaurlaritzako Herrizaingo sailburu ohi baten semea, Bilboko Portuko presidente izan zen. Andoni Ortuzar Euzkadi Buru Batzarraren lehendakaria Bizkaiko Diputatu Nagusiaren Kabineteko buru ohi baten osaba da, Igor Camañoena. Joseba Egibar GBBko lehendakariak bi iloba izan ditu Jaurlaritzako goi-kargu gisa: Eneko Goenaga eta Imanol Goenaga. José Antonio Suso, ABBko lehendakaria, Autogobernuko zu-

zendariarekin ezkondata dago, Begoña Pérez de Eulaterekin.

Jaurlaritzako karguen senideak ere aspalditik ari dira administrazioan. Ardanza lehendakari ohiaren alaba Nagore Ardanza Bilbao PortLab-eko koordinatzailea da, eta horren osaba bat bere garaian Jaurlaritzako goi-kargu izendatu zuten. Legebiltzarreko lehendakaria den Bakartxo Tejeriaren senarra, Joanes Labayen, Jaurlaritzako aholkulari gisa kontratatu zuten. Bestalde, Jaurlaritzako Osasun sailburua den Gotzone Sagarduren senarra, Iñigo Apellaniz, prebentzio zerbitzuko burua da Metro Bilbaon, eta koinata bat, Alfonso Apellaniz, Ertzaintzako prebentzio zerbitzuko burua. Victoria Landa, Ertzaintzaren zuzendaria, Brigada Mugikorren arduraduna izan zen Patxi Lealekin ezkondata dago.

Arantxa Tapia sailburuaren senarra (Julián Flórez) eta Jokin Bildarratz sailburuaren emaztea (Ane Garate) administrazioarentzat lan egiten duten elkartean ari dira. Urien ahizpak Jaurlaritzako goi-karguak dira. Nerea Urien jeltokia Osasun sailburuordea da, eta bere ahizpa, Izaskun, Segurtasun saileko Giza Baliabideen zuzendaria. Uriarte anaiak ere goi-kargudunak dira. Jon Uriarte, Ertzaintzaren zuzendari ohi, gaur Justizia Administrazioako zuzendaria da, eta bere anai, Aitor, Joko eta Ikuskizun zuzendaria Segurtasun sailean. ●

## Duda-muda



**EDU ZELAIETA ANTA**  
IRAKASLEA ETA  
IDAZLEA

**R**amadana bukatzeaz zela sortu zen zalantza irakasleen artean: familia musulmana duten ikasle batzuek adierazia zuten, ramadanaren amaieraren ospakizuna zela eta, ez zirela egun horretan joanean gelara. Ekintza horren bidez –aipatu zuen irakasle batek– argi gelditzen da, egun horretan behintzat, erlijioa hezkuntzaren eskubidearen gaitetik dagoela. Beraz, egin dezatela nahi dutena familia horiek, baina nik falta jarriko diet etorriko ez diren ikasleei.

Ezin duzu hori horrela egin –eman zion kontesta zuzena ikasketaburuak–. Izan ere, bada lege bat, Espainiako Erresuma izeneko eremu juridiko honetan, horre-

tarako aukera ematen duena: estatua- ren eta Espainiako Batzorde Islamikoaren arteko lankidetzak-akordioa. Bertan –ikasketaburuak burua ordenagailura biratu– hauxe zehazten da: “Ikastetxe publikoetan nahiz pribatuetan ari diren ikasle musulmanek ez dute eskoletara joan beharrik izango, ez eta azterketak egin beharrik ere, erlijio-jaiegunetan, beren kabuz edo guraso-ahala dutenek eskatuta”.

Eta mudan jarraitu zuen dudak, beste baten ahotik: badakizu lege horrek, edota konkordatuak, zerbait ote dion ikasleak sexu-hezkuntzaz edota hezkidetzaz salbuesteko aukeraz? Zeren eta lehengoan... ●

# 'Talentua', modako hitza



**KIMETZ ARANA BUTROE**  
BARATZEZAINA

**A**sko aipatzen da politika, ekonomia eta enpresa munduan. Talentua teknologia berriak aplikatu eta zabaltzeko motorra da, ezagutza eta berrikuntza ardatz dituen gaurko gizartean. Gainera, lurralde baten lehiakortasunaren, etorkizunerako egokitzapenaren eta garapen ahalmenaren neurgailu ere bada.

Horregatik, talentua zabaltzeko eta sustraitzeko xedean unibertsitate eta lanbide heziketan formakuntza tekniko berriak diseinatu eta eskaintzen dira, lehendik ezagutzen ez genituen arlotan. Era berean, teknologia jardueretarako guneak sortu eta formatutako langileak tokian gelditzeko baldintzak sortzen saiatzen dira bateko zein besteko administrazioak.

Gaztaroan oinarritzko heziketa zein batxilergoa bukatu eta ikasketa bat aukeratzeko orduan normala da dudak izatea. Hala izan ginen gu eta horrela dira orain asko. "Datorren urtean zer?" galdetuta, "ez dakit baina oposizioak..." diote. Berdin liburuzain, irakasle, atezain, ertzaingai, administrari edo basozain. Funtzionariotza helburu, lepo dago herriko liburutegia.

Berdin liburuzain,  
irakasle, atezain,  
ertzaingai, administrari  
edo basozain.  
Funtzionariotza  
helburu, lepo dago  
herriko liburutegia

Bizkaiko lantegi handien kulturaren gazte bat lanean hasitakoan gure aiti-ta-amamek "ya se ha colocado" esaten zuten, bizi guztirako postua lortu zuelakoan. Ildo berean, lanarekiko interesaren gainera, errotetaren errotetasuna, lanpostua mantentzearen segurtasuna edo, batzuetan, lanarekiko ardurarik hartu nahi ez izana dira funtzionariotza aukeratzeko argudiotako batzuk.

Enpresa munduan, aldiz, gero eta ohikoagoa da pertsona batek bizitzako aldi desberdinetan lanez edota, areago, sektorez aldatzea. Joera hori indartuko dela dirudi.

Hortaz, lan berri baterako egokitzapenak dakartzen zailtasun eta ahalegina nabarmentzen dituzte zenbaitek. Besteek, ordea, epealdi ertainetan lanez aldatzeak bizi guztirako lan errepikakorraren aurrean osasun mentalerako onura dakarrela diote, pertsona gustuko arloan ari denean bereziki. Nolanahi dela, egoera berrira errazago egokituko da talentuduna.

Lan tradizioaletan beti izan dira profesional artistak. Aurrean duten arazoa aztertuta konponbide estetiko eta funtzionalak bilatu dituzten nekazari, igeltsero, arotz, sukaldari, tornulari eta abarrak. Beren arloko ezagutza teknikoek gain haien trebeziak gartzeko beharrezko izan zaizkie behaketa, laneko autonomia, ikuspegi zabala, prozesuak hobetzeko nahia eta bere arloarekiko grina.

Beraz, talentudun jendartearen sorreraz badugu helburu jakitate teknikoek gain, beharrezko da eskola, herri eta enpresetan lehen aipatutako ezaugarriak lantzea. Prozesu berria diseinatu duen ingeniarietik leihatilako funtzionarioraino, talentuz, gogoz eta bokazioz. ●

2024KO  
MAIATZAREN  
LEHENA

**ANTOLATU  
BORROKATU  
IRABAZI**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

**Bilbo 11:30**  
Jesusen Bihotza

**Iruña 11:30**  
Gurutze Plaza



KALKULAGAILUA

# digitalan.eus

Neurtu lan-arloko zure osasun digitala



Apirilak 28 | Laneko Segurtasun eta Osasunaren Munduko Eguna



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU SAILA  
DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO



OSALAN  
Laneko Segurtasun eta  
Osasunerako Euskal Erakundea  
Instituto Vasco de  
Seguridad y Salud Laborales

# BOLLOTOPAKETAK

## Bollera subjektua erdigunean jartzera datorren hitzordua

Apirilaren 26, 27 eta 28 hauetan iraganen da Euskal Herriko bolleren topaketa, Leitza herrian. Izenak argiki dioen gisara bollerei irekitako jardunaldiak dira, baina, oro har, sexu/genero disidente oro da gomitaturik. Egitarau aberatsa eta askotarikoa ondurik, taldean hausnartzeko hitzordua izanen dute, baita giro seguruan eta sanoan bestatzekoa ere. Gaur egungo galdera, eztabaida eta erronkei begira jartzeaz gain, iraganari ere so eginen diote, orain dela 40 urte Euskal Herriko lesbianen lehen topaketak antolatu zituztenei eskertza eta aitortza eginez.

### JENOFA BERHOKOIRIGOIN

**E**uskal Herriko bolleren topaleku bihurtuko da Leitza apirilaren 26, 27 eta 28an. Jende andanak eman du izena Bollotopaketetarako eta 550 bat bollera batuko dira asteburuan, identitate horretatik hausnartzeko asmoz. Bollerrak nagusiki, eta oro har sexu/genero disidenteak: "Heterodisidente guztiak izango dira ongietorriak, baina eduki zentrala bollerrismoa izango da, hau da, subjektu bolleroa, haren genealogia, egungo egoera politikoa eta dauzkagun erronkak", zehaztu dio antolatzaileetarako batek *Emaraun* aldizkariako elkarrizketatzaileari. Izenemateen aurreikuspen guztiak gainditu direla ikusirik, ezin ukan gogo bati erantzutera datozela. Subjektu politiko horretatik eta horrentzat antolaturiko jardunaldiak ez direlako ohikoak Euskal Herrian.

Gutasun hori izendatzeko terminoak aldatu arren, egon dira iraganean ere helburu berarekin muntaturiko topaketak: 1983ko "Euskadiko Lesbianen Topaketak", 1987ko "Euskadiko Lesbianismoari buruzko Topaketak", 1997ko "Euskal Herriko Lesbianen Topaketak" eta ondotik, maila lokalagoan antolatu-

riko beste zenbait. Lehen ediziotik 40 urte pasa direla, hasi ziren iaz Bollurria bollera talde transfeministakoak Bollo-topaketen irudikatzen, hain zuzen, urtemuga hori nolazpait markatzeko gogoz.

Antolatzaileek badakite aitzineko bollerei –anakronismoak saihestuz, orduko "lesbiana feministei"– anitz zor dietela. Hori azpimarratzeko hitzordua ere izanen da Leitza: "Pertsona hauek merezi dute euren ekarpenen eta borrokaren aitortza kolektiboa, eta espero dugu omenaldiaren oihartzuna garai horretan ibilbidea hasi zuten pertsona gutzietara heltzea, baita bertan egoteko aukera ez dutenengana ere", dio antolatzaileetan den Argi Lertxundik. 1983ko maiatzaren 21 eta 22ko Zamalbideko (Errenteria) lehen topaketa horietatik bide luzea egin delako.

Garaiko antolaketan egondako Nati Ruforekin hitz eginez begi-bistakoa gelditzen zaigu ordukoen indarra, kemena eta ausardia. Garai hartan lesbianak ez zirelako ikusiak ezta izendatuak ere. "Bi emakume elkarri loturik agertuz gero, lagunak ziren. Lagunak bai, baina elkarrekin sexu harremanak geneuzkan lagunak ginela erakutsi nahi genuen.

Ikusgarritasuna zen gure helburu nagusia, ikusten ez dena ez delako existitzen". Noiz eta, harreman horiek legez zigorturik ziren testuinguru batean: homosexualitatea zigortzen zuen Arriskugarritasunaren eta Errehabilitazioaren Legea 1978 urtera arte zutik egon zen Espainiako Estatuan –Frantziako Estatuan 1982a arte zigortu zituzten harreman homosexualak-. Legez zigortuak izateaz gain, gaixo eta anormal gisa sailkatuak ziren: homosexualitatea eritasunen zerrendan sailkatu zuen Osasunaren Mundu Erakundeak 1990a arte.

Horiek horrela, nahiz eta beharra argi ukan, karririk hartzea ez zitzaion urrats arina: "Gutariko batek beti zioen 'benga, pankarta ez dela bakarrik aurreratu, momentuko ez dauka gurpilik!'. Aurpegia erakutsi behar genuen eta horretarako prest geundenak gutxi ginen". Inguruko trufak, irainak, epaketak eta erasoak zituzten ordainsari: "Zirko batean bezala ginen, manifestatzen baino jende gehiago zegoen manifestazioari begira". Euskal Herriko sexu askapenerako militante guztiak dute gogoan 'Francis' Vicente Vadillo Santamaria Errenteriako trabesti ezagunaren

hilketa. 1979ko ekainaren 10ean polizia batek tiroz hil zuen Errenteriako Apolo diskotekan. Hilketa horren salatzeke manifestazioak izan ziren gay eta lesbianen eskubide eta askatasunaren alde Euskal Herrian egindako lehen ekimen publiko eta politikoak. 1977an osaturiko EHGAM Euskal Herriko Gay eta Lesbianen Askapen Mugimendua izan zen eragile nagusia.

Ikusgarritasun hori lortu nahian antolatu zituzten lesbiana aktibisten arteko lehen topaketak: "Ikusgarritasuna genuen aldarrikapen nagusi, eta bide horretan hainbat kolektiboren artean topatzea interesgarria zitzaigun, aldarrikapenak eta helburuak elkarrekin adosteko. Gurea zabaldu nahi genuen eta bagenekien elkartuz indar gehiago izango genuela", oroitzen du Rufok. 250 bat lagun batu ziren Errenterian.

Baina gutasun horrek nondik eragin beharko zuen? EHGAM mugimenduaren baitatik? Hasieratik militantzia esparru

“ ”

“Dinamika normatiboek ematen dituzten pribilegioetatik kanpo gelditzen diren bizitzak defendatu nahi ditugu”

Ibis Ugarte

izandako mugimendu feministatik? Autonomoki lesbiana feministen artean antolatuz? "Hor bagenuen eztabaida, non eragin genezakeen gehiago, eta bietan zeuden kontraesanak. EHGAM guretzat oso mugimendu maskulinoa zen, eta garai hartan feminismoak oso jar-

dun heteronormatiboa zuen, ziurrenik egoerak berak behartuta", kontatu zion Pilar Mendibil Pilonek ARGIAri 2019ko elkarriketa hartan. Azkenean, mugimendu feministaren baitatik eragitea ez zuten baztertu, baina horri gehitu zioten lesbiana feministen artean antolatzeke urratsa. 1985ean sortu zuten, adibidez, Euskadiko Lesbiana Feministen Kolektiboa, aitzineko urteetan lurraldeka osatutako kolektiboen topagune izango zena.

40 urte pasa arren, mugimendu feministarekiko elkarlanak zein batasunak segitzen dute dinamikaren osagai inportante izaten. Hain zuzen, Bollo topaketak ere transfeministotik ondu dituzte, eta antolaketarako asanbladako kide anitz dabilta mugimendu feministan ere buru-belarri.

1983ko Euskadiko Lesbianen Topaketan gauzapenean aritutakoei eskainiko die aurtengo Urrezko Hirukia EHGAM taldeak. "Gure genealogiak eta errefe-



Euskal Herriko hainbat txokotako jendea batu da antolaketarako asanbladetan. Funtsean, Korrikaren kari sentitu izan da duen dimentsio nazionala: Bollo topaketetarako deiak ikusi ahal izan dira kilometro andanatan.



Buru-belarri aritu dira jardunaldien antolaketa 70 bat lagun. Asanbladen bidez eta autogestioan mamitu dituzte Bollotopaketak. Argazkian, asanblada egun horietariko batean baturiko jendea.

rente kolektiboak ezagutzeari balioa eman nahi izan diogu Urrezko Hiruki honen bidez, eta pertsona horiek LGBTI+ borrokan izandako aitzindaritzaz aitortu nahi izan dugu. Gehiegitan bigarren mailan eta ezkutuan geratu dira LGTBI+ askapen borrokan ekintzaile lesbianak, eta oro har mugimendu honi emandako bultzada eskertu eta saritzeko modu xume bat da hau". Usaian ekainaren 28aren kari banatzen baldin badute ere saria, aurten Bollotopaketetan egingen dute, "aitortzari esanahi kolektiboa eta ospakizun-ukitua emateko" xedez.

Orduko ikusgarritasunaren helburuaz galdetuz gero, ondokoa dio Bollotopaketetako Ibis Ugartek: "Praktiken inguruko onarpen soziala handitu den arren, dinamika normatiboek ematen dituzten pribilegioetatik kanpo gelditzen diren bizitzak defendatu nahi ditugu, praktika ez-normatiboak erdigunean jartzeko. Horretarako, lesbianismoa bizitzeko beste eredu batzuek ikusgarritasuna hartu beharko lukete, zehazkiago, merkatuari eta sistemari deserosoak egiten zaizkienek".

“ ”

"Ikusgarritasuna genuen aldarrikapen nagusi (1983an), eta bide horretan, interesgarria zitzagun kolektiboen topaketa"

Nati Rufo

### LESBIANA FEMINISTATIK BOLLERARA

Horregatik joan da "lesbiana" subjektuari lekua hartzen "bollera" subjektua. Lesbiana terminoaren erabilpena nagusitzen bada ere jendartean, norbanako batzuk "bollera" hitzarekin izendatzen dute beraien izana: "Nolabait definitzearen, esan dezakegu bollera desira lesbikotan jatorria duen baina hortik

harago doan posizio politiko bat dela. Bollerismoak gizonak eta emakumeak sortzen dituen sistema heterosexualari uko egiteko aukerak irekitzen ditu, eta beste identitate posible bat proposatu. Beste identitate horri tiraka, bollerak ez gara emakumeekin txortan egiten duten emakumeak, emakumetasun inposatuari uko egiteko sortzen den kategoria politikoa delako bollera", diote antolatzailleek.

Aitzinekoen borrokari esker, ikusezina geroz eta agerikoagoa bihurtu dela ezin uka, eta onarpenaren bidean, mentalitateen eta legeen aldaketak irabazi direla ere argi da. Duela 40 urte lesbianismoan kokatzea eta lesbiana gisa plazaratzea baldin bazen apurtzailea, normalizazioan eta onarpenean aitzina egin arau, sen iraultzailea birkokatzen joan dira lesbiana politiko batzuk, "lesbiana feminista" subjektutik "bollera" subjektura salto eginez. Funtsean, bollera identitatea taldean eta politikoki mamitzeko asmoz, subjektu horri bideratuko diote asteburuko hitzaldi nagusia, asteburuko hitzordu nagusien artean izango dena.



EMAGIN



EMAGIN



JOXE LACALLE



EMAGIN



EMAGIN

Euskal Herriko lesbiana feministak 1970eko hamarkada bukaeran hasi ziren kolektiboki antolatzen eta eragiten. Garaiko ekintzaileei eskertza eta aitortza bideratzeko unea izanen dira Bollotopaketak.

Bilakaera horren isla izan nahi du Bollotopaketetan egonen den *Bollologia*. *Euskal Herriko bolleron mugimenduaren genealogia bisual bat* erakusketak. Asanbladako lau lagun aritu dira artxiboen miaketa horretan eta oro har, modu autonomoan eta talde ttipika antolatu dira jardunaldietako eskaintza guztiak. Autogestioan eta horizontaltasunean oinarrituriko programa osatu dute: "Egitarian agertzen diren gaiak antolakuntzako kideek dituzten kezka eta interes politikoak islatzen dituzte. Asanbladetan identifikaturiko korapilo eta erronketatik tiraka proposatu dira", Ugartek dioenez. Iazko azaroan gaiak zerrendatu eta bakoitzaren interesen arabera osatu zituzten lantaldeak, hortik eskaintza modu autonomoan lantzeko ideiarekin. Tailerrak, hitzal-diak, dokumentalak, podcastak, erakusketak... finean, sei hilabete pasa eta, uzta aberatsa atera zaie. Asteburuan jorratu-ko dituzten gaien multzoa askotarikoa da: herri txikiak eta landa eremuetako bolleren errealitateak; terf mugimendu esentzialistaren aurkako borroka; boterea eta sexualitatea; drag tailerra; etxebizitza hautuak; bolleren arteko indarkeriak; bollarak eta zahar-tzaroa; sare bolleroak eta familia nuklearra; Palestinari transfeminismotik begiratzeko postura... Horrez gain, sorkuntzak, mugimenduak eta bestak ere izango du lekua: Danele Sarriugarte eta Miren Narbaizaren *Poperra, afterra, utopia* ikuskizuna; bertso saioa; gorputz adierazpeneko jam saioa; Kafuné Kolektiboaren *Nire irudia zure haragian* antzezlan; kanariar borroka torneoa; espazio publikoa berenganatzeko ekintza kultural-politikoak; sortzaileen azoka; karaokea eta dj-ak... "Hausnartzeaz gain, jai giroa ere bermatu nahi dugu, testuinguru cisheterozentratu batean festarako espazio seguruak ez dauzkagulako nahi bezain beste. Giro seguruan jardunaldi horiek bizitzeko aukera ere izango du bollera eta genero/sexu disidente orok", dio Lertxundik.

### SAREA EHUNTZEN SEGITZEKO

40 urte pasa arren, bere horretan berdin-berdin garrantzitsu izaten segitzen duen osagaietariko bat dugu saretzea.



“ ”


“Duela 40 urte lehen topaketak antolatu zituztenek merezi dute euren ekarpenen eta borrokaren aitortza kolektiboa”

Argi Lertxundi

Lesbienen ikusgarritasunean eta normalizazioan aitzina egin arren, jendarte heteroarautua, finean, guti aldatu delako: beti bezain sendo, zurrun eta inposatzaile izaten segitzen du. Hezkuntzak, legediak, iruditegiak, politikak, sorkuntzak, komunikabideak, hitzak, ideiak, erabakiak... hots, guztia da arau horren euskarri eta akui-lu. Errealitate horretan, zaintza eta indarra beharrezkoak dituzte lesbianek eta are gehiago bollerek; eta bide horretan, inportantzia handia dute sare bolleroek. Oinarrian hori ere bazuten helburu Bollotopaketako antolatzaileek. "Prozesu partehartzaileak eta asanblada irekiet berebiziko garrantzia izan dute. (...) Jardunaldiak heltzen direnean, egindakoaz gozatzeko eta harro sentitzeko momentua izango da, eta momentu aproposa ere izango da aliantza horietan sakontzeko", dio Ugartek. 70 bat lagun batu dira asanbladetan, Euskal Herriko hainbat txokotakoak, hirikoak zein herri ttipietakoak.

1970eko hamarkadaren bukaeran zegoen saretze beharraz luze eta zabal aritu zaigu Rufo. Hor ere dena zegoen egiteko: gutasunik ez zegoen eta sarea sortu eta osatu beharra zuten. Solasaldiak antolatzen zituzten, lesbianen arteko gogoeten bidez taldea sendotzeko: "Funtsezkoa zitzaigun taldean hausnar-

Goian, 2024ko Bollotopaketen kartela eta behean, 1983an antolaturiko Euskadiko Lesbianen Topaketen irudia.





TXINTXARRI

Bollera subjektuaren bidez definitzen dira Bollotopaketen antolatzaileak: "Gizonak eta emakumeak sortzen dituen sistema heterosexualari uko egiteko aukerak irekitzen ditu bollerismoak". Argazkian, Lasarte-Oriako Transmaribollo Kolektiboaren 2022ko manifestazioa.

tzea. Hainbat panfleto eskuratzen genituen eta horretaz gogoetatzten genuen. Adibidez, *butch-fem* izaerari buruzko alemanen eta ingeles testu batzuk eskuratu eta horretaz aritzen ginen luze eta zabal. Azkenean, hitz egiten ez bagenuen, gauza asko ez genekizkielako". Sexualitatearena zuten beste gaietarikoa bat, garaian ez zegoelako harreman sexual-afektibo lesbikoei buruzko galderak, ideiak zein gogoetak partekatze espaziorik. Bide horretan, tresna eta erreferentzia nagusia izan zuten *Sor-ginak* aldizkaria. 1986an sortu zuten eta 1995a arte iraun zuen. Ondotik, 1998tik 2000 urtera, berriz plazaratu zuten. Garaiko Euskal Herriko lesbiana feministen sorkuntza gehienak biltzen zituen –poesia, argazkigintza, umorea, hausnarketa teorikoa...– eta nazioarteko gogoetak Euskal Herriratzeko tresna ere bazen.

Saretze bidean bestak "berebiziko garrantzia" izan zuela oititzen du

“ ”

"Prozesu parte-hartzaileak eta asanblada irekiek berebiziko garrantzia ukan dute. Egindakoaz goatzeko eta harro sentitzeko unea izango dira Bollotopaketak"

Ibis Ugarte

Rufok. Inguru ezezaguna zitzaionari hurbilketa-bidea errazten zion: "Festak antolatzen hasi ginen (Donostiako) Ato-txako Duque de Mandas kalean geneukan lokalean. Jendeak horren berri ukan

zuen eta inguruko herri txikiak hasi ziren etortzen (Alkizatik, Tolosatik...). Topaleku horiek ezinbestekoak genituen isolaturiko emakumeak batzeko: etorri eta beste batzuekin topo egiteko, bakarrik ez zeudela sentitzeko, elkar babesteko, harremantzeko, ligatzeko... Hori guztia zekarten festarako espazioek".

Bollotopaketen dinamikaren eta egitarauaren nondik norakoak entzutearekin piztu zaito Leitzara etortzeko gogo Rufori. "Ikusgarritasuna behar genuen eta ikusgarri egin ginen; aldarrikapenak bagenituen eta aldarrikatu genuen. Bide berriak irekitzea lortu genuen, baina oraindik badaude irekitzekoak. Nik nirea egin dut. Guk egin dugu gurea eta lekukoa pasa dizuegu eta aurrera zoazte ideia eta aldarrikapen berriak gehituz". Iparrorratza geroari begira jarri eta lekuko hori Leitzako plazaren erdian astinduko dute ateburuan, harrotasunez. ●

# Askatasunaren Ontzidiak blokeoa apurtu eta laguntza humanitarioa sartu gura du Gazan

 XABIER LETONA BITERI

**M**unduko dozenaka erakundek osatzen dute Askatasunaren Ontzidia eta bere helburua da 2007az geroztik Israelek Gazari jarritako blokeoa haustea. Iragan urriaren ondoren blokeo hori erabat areagotu da, eta flota horrek Gazara iristeko saioa egingo du datozen egunetan.

Turkian ari dira biltzen ontzidian parte hartuko duten kideak eta datozen egunetan abiatuko dira Gazara Istanbuletik. 350 edukiontzi eta 5.500 tona laguntza humanitario daramatzen karga-ontzia da espedizioaren muina, eta hori beste hiru itsasontzik lagunduko dute, bermatu nahian Gazara iritsiko dela. Mundu osoko ehunka pertsona joango dira ontzi horietan, hala nola giza eskubideen behaketan aritzen direnak, medikuak, politikariak edota kazetariak. Euskal Herritik ere hainbat pertsona abiatuko dira ontzidian, Espainiako Estatuko beste hainbatekin batera. Madril, Bartzelona eta Bilbotik aterako dira. Jakinenez, horien artean joango dira Ada Colau Bartzelonako alkate ohia edota Andaluziako Podemoseko idazkari nagusi Martina Velarde.

Rumbo a Gaza (Gazara Bidean) ekimenean antolatu dira Espainiako Estatutik abiatzen direnak. Espainiako Kongresuan hainbat indar politikotako ordezkariekin bildu dira –Sumar, Podemos, ERC, Junts, EH Bildu eta BNG– Espainiako Gobernuak ontzidia babestu dezan eskatzeko. Askatasunaren Ontzidiak salatu du Israel arma gisa ari dela erabiltzen gosea eta, horren ondorioz, gosetea barreiatu dela lurraldean. Israelek Palestinako errefuxiatuak laguntzeko UNRWA erakundearen lana eragozten du, eta giza laguntza Gazara sartzeko arazo handiak daude. Hortaz, laguntza hori Gazara helarazten saiatuko da nazioarteko ontzidia.

2010ean ere egin zuen molde horretako saio bat Askatasunaren Ontzidiak eta Israelgo Armadak eraso egin zion, ondorio larriekin; hamar pertsona hil zituen eta 30etik gora zauritu. 2015ean ere hiru belaontzi saiatu ziren Gazara iristen, baina Israelgo Armadak ontziak abordatu eta ahalegina eragotzi zuen. Rumbo a Gazako webgunean ikus daitezke hainbat urtetan Askatasunaren Ontzidiak Gazara iristeko egindako saioak.





# Badira hartzea merezi duten arriskuak, genozidioa gelditu behar dugu



Hiru militante euskaldun ari dira parte hartzen Askatasunaren Ontzidian, Turkiatik Gazara laguntza humanitarioko 5.500 tona material eraman nahi dituen nazioarteko ekimena: Pili Revilla, Agus Gorbea eta Mikel Zuloaga 'Mikelon'. Apirilaren 18an hartu dute Bilbotik Istanbulera eraman dituen hegaldia, eta bi egun lehenago eskaini diote elkarrizketa ARGIAri. Apirilaren 21ean zen ontzidia itsasoratzekoa, baina, "ziurrenik Israelekin lotura duten arazo administratiboak tarteko", azaldu digute hiru aktibistek Istanbuletik, irteera atzeratu egin da. Elkarrizketa hau inprentara bidaltzeko egunean (apirilak 22), itsasoratze data ez dago zehaztuta. Ekimenaren planteamendua, bidaiaren arriskuak zein aukerak eta ontzidira batzeko zergatiak aletu dizkigute. Ekimenak irauten duen bitartean ARGIA irakurri ahal izango dituzue haien kronikak egunez egun.

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

**Asteartean egiten ari gara elkarrizketa, Bilbotik Istanbulera bidaiatu baina bi egun lehenago. Behin Istanbulen, zein da plana?**

**Mikelon:** Istanbulen bertan bi egun emango ditugu. Erresistentzia ez-biolentoari buruzko tailer batzuk egingo ditugu, itsasontzian bertan sortu daitezkeen egoerak aurreikusi eta horietan nola jokatu praktikatzeko: hizkuntza berbala, gorputzarena... Hori dena oso ondo landu behar da, tentsio egoeren aurrean denok autokontentzioari eusteko izan gaitezen, israeldarrak oso probokatzailerak direlako, eta kakoa azkar sakatzekoak. Izapide administratiboetarako ere erabili beharko ditugu bi egun horiek.

**Hau emergentzia misioa da, bi milioi pertsona gosez hil beharrean dituzte, erdia adingabeak**



**Horren ostean, igandean bertan Gazara irtetea da asmoa?**

**Pili Revilla:** Bai, guk dakigula ez dago geldialdirik aurreikusita. Nik imajinatzen dut unereren batean israeldarrak saiaturiko direla gu geldiarazten, eta ho-

rren aurrean estrategiaren bat izango dutela pentsatuta gure antolakuntzatik, baina jakina guk ez dugu informazio guztia, eta horrela izan behar du. Trabarik ezean bizpahiru egunetan egiteko bidaia da, distantziari begiratuta.

**Askatasunaren Ontziditik iragarri da oinarrizko beharrak asetzeko laguntza humanitariorako 5.500 tona material garraiatuko duzuela, hori asko da. Zenbat barkuk osatuko dute ontzidia?**

**M:** Lau dira: bat merkantzia-ontzia, handia, materiala garraiatuko duena, eta beste hiruetan egongo dira nazioarteko aktibistak, behatzaileak, politikariak edo bestelako jende entzutetsua, eta kazetariak.

**Askatasunaren Ontzidiak 2022an iragarri zuen 2023an beste bidaia bat antolatuko zuela. Hortaz, ekintza Gazaren aurkako azken sarraskiaren aurretik hasi zen prestatzen?**

**M:** Ez dakit noiztik ari diren turkiarrak prestaketa lanetan, baina hau ez da sortu 2023an hasitako erasoaldierengatik. Itsasontzi handiez ari gara, ehunka pertsonaz. Askatasunaren Ontzidia nazioarteko koordinakunde bat da, hainbat herritako mugimendu eta kolektiboak biltzen dituena. Kanadan, Turkian, eta oro har herri arabiarretan eta Europa Iparraldean indar dezente du, esaterako, Espainiako Estatuan gutxiago.



Pili Revilla, Agus Gorbea eta Mikel Zuloaga 'Mikelon' ostegunean Bilbon, Istanbulerako hegazkina hartu aurretik.

**Lehenbiziko Askatasunaren Ontzidia 2010ean irten zen, armada israeldarrak ontzia aboratu, hamaika pertsona hil eta beste hainbat zauritu zituen. Ordutik beste bidaia asko antolatu dira, aurrenekoaren tamainako erasorik ez da gertatu, baina arazoak izan dira arau: itsasontziak bahitzea, Greziako portuan blokeatzea, aktibisten atxiloketak... Bestetik, Israelek ehunka kooperante eta boluntario zibil hil ditu hilabeteotan, baita mendebaldarrak ere. Zer gorputzaldirekin zoazte?**

**P. R.:** Ni banago pixka bat urduri, bate-tik, ontzidian noan lehen aldia delako, bestetik, egunotako albisteengatik, aipatu dituzunak edo Iran-Israel gatazka, esaterako. Horrek eragiten dit buruari bueltaka aritzea, pentsatzea ziurrenik egoera oso arriskutsua biziko dugula. Baina talde handia goaz, talde arduratsua, inork ez du behar ez den arriskurik hartuko. Eta, edozein modutan, badira hartzea merezi duten arriskuak, asko dago jokoan, genozidioa gelditu behar dugu.

**Agus Gorbea:** Nik Piliren antzeko sent-sazioak ditut. Bada gauza bat ez du-dana atsegin. Jendea etortzen ari zait, "Aizu, benetan egin behar duzula?", edo, "Agurtu beharko gara joan aurretik"...

**'Zertarako mugituko naiz ez badugu ezer lortuko' horri aurka egin behar diogu, ez delako egia, beti lortzen da zer edo zer, beti eragiten dugu**



Urduritasuna elikatzen didate. Edozer gerta daitekeela? Hori oso argi dago. Gauzarik muturrekoenak ere? Ez dut uste, pentsatzen dudalako ez zaiela inter-esatzen.

**M.:** Erdian jarri behar dena helburuak dira, eta iruditzen zait erresistentzia ez-biolentoko ekintza bat egiteko unea dela. Beti daude arriskuak, baina ez goaz sakrifizio bat egitera, baizik eta ekintza burutzera: helburua Gazan sar-tzea da. Hau da unea.

**Antolakuntzatik azpimarratu dute ez dela inongo koordinaziorik edo lankidetzarik saiatuko Israelekin.**

**Zergatik?**

**M.:** Lehenik eta behin, hau emergentzia misioa da, bi milioi pertsona gosez hil beharrean dituzte, erdia adingabeak. Bestalde, ontzidiak ukatu egiten du Israelek inongo eskubiderik duenik Gazan sartu daitekeen laguntzaz erabakiak hartzeko. Ez dugu baimenik eskatuko, ez dugu baimenduko gure kargaren inspekzioari Israelen aldetik, Gazako ki-deekin ari gara elkarlanean.

**Zergatik erabaki du zuetako bakoitzak Askatasunaren Ontzidiarekin itsasoratzeraz? Zein da kausa palestinarrekiko zuen pertzepzioa edo harremana?**

**A.G.:** Urriaren 7aren aurretik, bi urte di-rela, Zisjordanian egon nintzen, Nablusen, Jeninen... Urriaz geroztik egiten ari diren genozidioaren beharrik ez daukat ni mugitzea, han egiten ari direna genozidio geldoa delako aspalditik, maiatzaren 15ean 76 urte beteko dira genozidioa hasi zela [1948ko Nakba edo Hondamendia]. Gazan egoera are larriagoa da, bereziki urriaz geroztik, baina Palestina osoan ari dira berdina egiten. Mendebaldeko gobernu guztien konplizitatearekin, AEB buru, jakina. Herritarrak mobilizatu dira horren aurka, baina ez nahikoa, uste dut egoerak Europa mailako greba orokorra eskatzen zuela, astebetekoa,

horrek mugituko luke ezer agian.

**P.R:** Ni aspalditik ari naiz mugitzen Palestinaren alde. Urteak dira, esaterako, Maccabi saskibaloitza taldea Gasteizera etortzen den aldiro ekimenak antolatzen direla. Palestinara bidaiatzeak ez ninduen gehiegi erakartzen pixka bat beldurtia naizelako, baina begira non nagoen orain. Zergatik? Gertatzen ari dena oso injustua, dramatiko, gordina delako. Bada sentimendu bat, egiten ari garena ez dela nahikoa, ez duela ezer aldatzen. Nik uste dut baietz, denak duela eragina, mobilizatu ez bagina Palestina agian jada existitu ere ez litzateke egingo. Baina badut zer edo zer gehiago egiteko beharra, horregatik erabaki dut joatea.

**M:** Ikusten duzunean gobernuak ez direla gai Israelen genozidioa gerarazteko, tamaina horretako genozidioa... Ekintza ez-biolentoan sinesten dugunontzat tankera honetako ekimenak egiteko unea da.

**Askatasunaren Ontzidiaren helburua ez da soilik bere karga Gazara eramatea. Ekintza politikoa eta komunikatiboa ere bada, munduko herritarrak interpelatu nahi dituen. Egin al daiteke ezer ekimenari lotuta Euskal Herritik?**

**A.G:** Ni Palestinarekiko Erantzukizuna plataforman hartzen dut parte. Udaltan mozio bat aurkezten ari gara, instituzioak publikoki Israelekin harremanak apurtuko dituela dioena. Batetik, gauza gutxi da, are gehiago kontutuan izanik udaletako askok ez dutela inongo harremanik Israelekin, baina adierazpen formal hutsak ere badu garrantzia. Moziolari gehitu dakioke ontzidiari utzi egin behar zaiola Gazara sartzen, elikagaiak sartu daitezzen eta blokeoa amaitzeko.



RUMBO A GAZA

Estelle belaontzia Donostiatik igarotzen, Suediatik Gazarako bidean, 2012an. Israelgo armadak eraso egin zion nazioarteko uretan.

## Arriskua dugu: zuzenean ikusten ari garen basakeriara ohitzea



**M:** Sortzen diren proposamen guztiak babestu behar dira, ez gaitetzen atomizatu beste batzuetan gertatzen zaigun moduan. Ingurune hurbileko jendea mobilizatuta dago, baina beste batzuk ez, eta ez nahikoa irmotasunarekin gauzak mugitzeko.

**P.R:** Irakeko gerraren garaian mobili-

zazio asko eta handiak egin ziren, baina orain Palestinarekin ez behar beste. Atxikimendua sortzen duen borroka da, baita ingurune militanteetatik harago ere, gizatasunagatik soilik bada ere. Bestelako kontua da gaurko gizarte kapitalistan nagusi direla jarrera erosoak: "Lotsagarria da, baina ez dugu ezer lortuko, beraz zertarako saiatu", diotenak. **A.G:** Arriskua dugu: zuzenean ikusten ari garen basakeriara ohitzea. Hori gertatzekotan, Israelen moduko beste edozein gobernu nazik nahi duen edozein gauza egiteko aukera izango du, ikasiko duelako herritarrak bai, mobilizatzen direla, baina ez nahikoa. Pilik azaldu duen "zertarako mugituko naiz ez badugu ezer lortuko" horri aurka egin behar diogu, ez delako egia, beti lortzen da zer edo zer, beti eragiten dugu. ●

43.  
LIZARDI  
SARIA

o Euskarazko haur literatura sustatzeko.

o Lanak aurkezteko epea: 2024ko uztailaren 14a.

Informazio gehiago: [www.zarautz.eus](http://www.zarautz.eus)



ZARAUZKO UDALA



“ ”

# “Komunitateko adineko baten esanak liburukoak baino balio handiagoa du”

Paula Laita Pallares  
Soziolinguistika ikerlaria

Irurtzunen bizi den bilbotarra. Hamar urtez Kanadako Columbia Britainiarrean bizi, lan egin eta ikertu du t̄silhqot'in herriko yunešit'in komunitatean. Nenqayni ch'i hizkuntza indigenaren biziberritze plana diseinatu eta martxan jartzeko prozesuan egin du bere doktorego tesia eta gaur egun Soziolinguistika Klusterrean dihardu ikerlari ibilbideari jarraipena ematen.

ASIER BASURTO ARRUTI IBAI ARRIETA / ARGIA CC BY-SA

## Nola heldu zinen Kanadako komunitate indigena batean bizitzera eta haien hizkuntza berreskurapenarekin konprometitzera?

2012an, masterra amaitu ondoren, kanpora bizitzera joatea erabaki nuen. Vancouverren bost hilabete pasa ondoren, lan kontuengatik Williams Lake herrira mugitu eta natur eskola batean lanean hasi nintzen. Herriko lagun baten senarrak t̄silhqot'in gobernu indigenan lan egiten zuen eta yunešit'in komunitateko buruzagiarekin kontaktuan jarri ninduen, nire ikasketak eta jatorria eza gututa interesa azaldu baitzuten.

Urtebetez aritu nintzen eskolan boluntario eta, bide batez, hizkuntza ikasten. Komunitatean ikerketa bat egiteko interesa agertu zuten eta, aldi berean,

Kanadako Gobernuak dirulaguntzak atera zituen hizkuntza indigenen biziberritze prozesuak bideratzeko. Hortik sortu zen nire lanpostua izango zena: yunešit'in komunitatean t̄silhqot'in hizkuntza biziberritzeko proiektuaren koordinatzailea. Hizkuntza batzorde bat sortzen eta hizkuntza plana garatzen laguntzea zen nire egitekoa.

## Nor dira t̄silhqot'inak?

T̄silhqot'in lurraldea Columbia Britainiarren barnealdean kokatuta dago. Vancouverretik zazpi ordura kotxez, iparralderantz. Nahiko lurralde handia da, baina t̄silhqot'inak 4.500 pertsona inguru dira eta horietatik 700 dira hizkuntza hitz egiteko gai. Sei komunitatetan bizi dira eta ni yunešit'in komunitatean bizi izan naiz. 1866an ezarritako *Indian Act* legetik

eratorrita, sistema kolonialak erreserbak sortu zituen, eta erreserba horietan eratu dira gaur egungo komunitateak.

## Herri indigenen zapalkuntza hizkuntzatik harago joan zen, ezta?

Politika koloniala izan zen “haurren barneko indigena hiltzea”. Indarrez eramaten zituzten haurrak komunitateetatik eskola erresidentzialetara, gutxienez urtebeterako; kasu batzuetan hamar urterako. Ume asko hil ziren suizidioengatik eta gaixotasunengatik, besteak beste. Ingelesezt hitz egitera behartuta zeuden, zigorrak jasotzen zituzten bestela. Gehiegikeria sexual eta hilketa ugari azaleratu dira azken urteotan. Esperientzia horiek sortutako trauma oso bizirik dago. Gaur egun 50 urte baino gehiago dituen oro eskola horietatik pasatakoa da.



“‘Hiriko indigenak’ eta ‘komunitateko indigenak’ bereizten dituzte. Hizkuntza biziberritzeko plangintza prozesuan ere gai potentea izan zen. Nola berreskuratu gure kultura, eta Facebook erabili horretarako? Batzuentzat gaizki dago hori”.

Trauma horrek ekarri du hizkuntzaren transmisio etena. Hiztun batek ez du berez erabakitzen bere hizkuntza uztea. Baina hizkuntza minarekin lotzean gertatzen da, batzuetan. Gaur egun eskola erresidentzialik egon ez arren, hori bizitako pertsonen seme-alabekin t̄silhqot’in hitz egiteari uzten diote eskolan hasten direnean.

“ ”

***Hizkuntzaren transmisioa eten bada ere, kulturaren transmisioa oso bizirik dago***

**Eta zein da bertako hizkuntzaren egoera?**

Beste hizkuntza indigena batzuekin gertatu den bezala, ezer egiten ez bada, hamar urtetan desagertzeko arriskuan dago. Hiztun osoak, hizkuntza erabiltzen dutenak, zaharrak dira. Hiztun hartzaileek, hizkuntza jaso bai baina transmititzen ez dutenak, 50 urte inguru dituzte. Transmisio naturala etenda dago; gurasoek ez diete ondorengoei pasatzen. Ni hasi nintzenean ezarri zituzten hizkuntza programak eskolan, baina ez dago murgiltze eredurik. Kasu gehienetan eskolatik jasotzen dute hizkuntza, etxetik baino gehiago; nahiz eta haien aiton-amonek badakiten eta erabiltzen duten. Hizkuntza biziberritzeari begira, transmisioa bermatzea eta murgiltze eredia zabaltzea dira lehentasunak.

**Zein toki du hizkuntzak herri horren kulturen?**

Komunitate honetan, behintzat, argi dute hizkuntza biziberritzea garrantzitsua dela. Herri izaera indartsua dute eta berreskurapenaren alde daude. Identitatearekin lotzen dute eta t̄silhqot’in izateko elementu garrantzitsua da. Dena den, euskaldun egiten gaituena euskara den moduan, t̄silhqot’in egiten zaituena lurraldea da. Lurrarekin lotura izan behar duzu; eta hizkuntza behar duzu, lurrarekin hitz egiteko. T̄silhqot’in hizkuntza menderatzen ez duten gazteek zati hori falta zaiela sentitzen dute.

**Hizkuntza indigenez jardutean askotan agertzen da ingurune naturala eta ingurune kulturalaren arteko loturaren ideia. Zertan ikusten da?**

Kultura eta lurra oso lotuta daude. Tšilhqot'in izateko, tšilhqot'inek egiten dituzten gauzak egin behar dituzu: ehiza, arrantza, fruitu bilketa... Espiritualitateari lotutako zeremoniak ere funtsezko elementua dira. Hori guztia lurrarekin lotuta dago. Hizkuntzaren transmisioa eten bada ere, kulturaren transmisioa oso bizirik dago.

**Espiritualitate hori erlijio independente bat da ala kristautasunarekin lotuta bizi dute?**

Nahasketa dago. Zaharrenak kristau sinestunak dira, baina gazteak ez. Eta beraien espiritualitatea ere badaukate. "Sortzaileaz" hitz egiten dute, jainko bati erreferentzia eginez bezala, baina beren espiritualitatean garrantzitsuena arbasoekin eta naturarekin harremana izatea da.

**Nola bizi da indigena izaera eta mendebaldar gizarteak dakarren bizimoduaren arteko harremana?**

Denetarik dago. Mendebaldeko gizartean bizi dira; lur orotako ibilgailuak dituzte eta supermerkatuan erosten dute. "Oso tšilhqot'in" direnak nabarmetzen dituzte: denda batean bizi zena, bertako kulturaren murgilduta bizi dena... Baina ez diote uko egin nahi mendebaldar gizarteak eskaintzen dizkien aukera batzuei, adibidez, unibertsitatera joateari.

“ ”

***Nire rola da datuak kudeatzea eta bermatzea lanak balio akademikoa izango duela; baina jakintza herriarena da***

"Hiriko indigenak" eta "komunitateko indigenak" bereizten dituzte. Hizkuntza biziberritzeko plangintza prozesuan ere gai potentea izan zen hori. Nola berreskuratu gure kultura, eta Facebook erabili horretarako? Batzuentzat gaizki dago hori. Gazte gehientzat ez. Baina tšilhqot'inen kantak, adibidez, ez dituzte Interneten jarri nahi heldu askok, komunitatearenak direlako, eta batzuk sakratuak ere bai, eta jabetza galduko duten sentsazioa dutelako.

**Zein da Kanadan eta Columbia Britainiarrean jatorrizko herrien hizkuntzekiko eta kulturekiko politikaren markoa?**

2007an *Aitortza eta Errekontziliazioa* agentzia sortu zen gobernua eta herri indigenen arteko harremana bideratzeko. Dirulaguntza ildoak sortu zituzten, *Egia eta berradiskidetzearen eguna* jaiegun nazionala ezarri dute, eta tšilhqot'in herriari barkamena eskatu diote Parlamen-

tuan beren buruzagiak hil eta zintzilika-tzeagatik.

Politikoki gauzak aldatzen ari dira, eta ikusten da, baina komunitateetan aldaketa horiek ez dira praktikan hainbestekoa. Gobernuarekiko menpeko sentitzen dira eta gehiago eskatzen dute.

**Zenbaterainoko batasuna dago herri indigenen artean, gobernuaren aurrean hitz egin eta negoziatzeko, adibidez?**

Herri indigenen artean borroka latzak egon izan dira lurraldeagatik eta baliabideagatik, baina gaur egun badituzte erakunde batzuk herri indigena gehienek partekatzen dituztenak. Horien bidez negoziatzen dute gobernu federalarekin aldaketa klimatikoaz, komunitateetako osasun baldintzez...

**Eta nor dira komunitate indigenen ordezkariak?**

Tšilhqot'inen sei komunitateetako bakoitzak bere gobernua, bere buruzagia eta bere sailburuak ditu. Eta gero tšilhqot'in guztien gobernua dago. Gauza batzuetan tšilhqot'inen buruzagiak ordezkatzeko du herri osoa, baina normalean komunitate guztietako buruzagiek osatutako taldea da herriaren ordezkaria.

Ez dituzte onartzen Kanadako muga politikoak eta eskualdeak. Beti naziotik naziora hitz egiten saiatzen dira: tšilhqot'in herria Kanadarekin. Ez dute onartzen Columbia Britainiarreko erakunde bitartekaritza.

**Hizkuntza biziberritzeko plangintza diseinatu eta koordinatzeaz gain, doktorego tesia egin duzu prozesu honen inguruan. Nola sortu zen aukera?**

Plangintza prozesuaren hasieran, ikerketa egin behar genuen diagnostikoa edukitzeko; jakiteko zenbat hiztun zeuden eta prozesua aurrera eramateko zein baliabide zeuden, besteak beste. Ikerketa handiago baten zati moduan ulertzeko aukera ikusi genuen. Baldintza objektiboak eta komunitatearen hautemateak ezagutzeko saiakera egin genuen, gainera. EHUren Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego programarekin harremanetan jarri nintzen eta onartu zuten programan sartzea.

**Baliatu dituzu guretzat ohikoak diren ikerketa teknika batzuk, baina baita metodologia indigenak ere. Zer dira horiek?**



Krisi batetik sortu zen hau. Ni, nire bizitzan, komunitateko kide nintzen, baina ikerketan ikerlaria eta ikertuak ginen. Ez nengoen eroso. Urte bat baino gehiago eman nuen marko metodologikoa garatzen, horri konponbidea bilatu nahian. Azken urteetan, Kanadan ikerlari indigenak indarrean zeuden eta hainbat hitzaldi eta antzekoetan haien berri zuzena izan nuen.

Ikerlariaren rola da datuak kudeatzea eta bermatzea lanak balio akademikoa izango duela; baina jakintza herriarena da eta ikuspegi haien mundu ikuskeran oinarritutakoa. Komunitatearen gauzak egiteko era, protokoloak, eta abar kontuan hartu ditut. Oso garrantzitsua da, emaitzak baliagarri izateko, haien ikuspegitik sortutakoak izatea. Arlo akademikoan ekarpena egiteaz gain, arlo praktikoan ere egin behar du ekarpena ikerketak: emaitzak komunitateari itzuli eta bertan aldaketak eragin.

**Ikerketarako erabili dituzun metodoak komunitatearen ohiko zenbait dinamikatan oinarrituta daude. Zertarako erabiltzen dituzte beraiek?**

Eskolan lan egitean, adibidez, eguneroan erabiltzen dituzten zenbait dinamika baliatu nituen. Adibidez, zirkulu partekatuak. Hori ez da borobilean eseri eta hitz egitea. Zeremonia oso bat da, protokoloarekin, kanteekin, intsentsuarekin... Dena egiten da eta egin behar da. Eta ulertzen da momentu horretan sortzen den ezagutza gure arteko harremanean sortutakoa dela, denok elkarrekin sortutakoa. Erabaki politikoak hartzeko ere horrelako zeremoniak egiten dituzte, kantuekin, otoitzekin, danborrekin...

**Eta unibertsitatean dagoen testuinguru konpetitibo eta burokratikoan metodologia horiek homologatzea erraza izan da?**

Subjektibotasunean oinarritutako ikerketa da. Komunitateko adineko baten esanak liburu batean irakurritakoak baino balio handiagoa du. Liburu gutxi daude tšilhqot'in herriaren ezagutza jasotzen dutenak, eta gehienak tšilhqot'inak ez diren idazleek idatzitakoak dira. Metodologia indigenetan ahozko iturriak oso garrantzitsuak dira.

Zaila izan zen unibertsitatearen epeak betetzea. Bi lengoia desberdinetan hitz



“ ”

*Prozesu pertsonala egin behar dugu euskaldun batzuk, indigena batzuk bezala, trauma, aurreiritziak edo erruduntasuna gainditzeko*

egiten dute unibertsitateak eta komunitateak. Euskal Herrian badugu beste sentsibilitate bat kontu honekin, eta arlo akademikoan Ipar Amerikan eta Ozeanian ere erabiliak dira, beraz, moldatu gara.

**Zer ekarri duzu euskal soziolinguistikarentzat baliagarria izan daitekeena?**

Hizkuntzaren gaiari modu holistikoan begiratu beharra nabarmenduko nuke. Hizkuntza kulturarekin, herriarekin, lurrarekin, familiarekin eta osasunarekin lotuta. Maila askotako eraldaketa prozesu moduan ulertzea. Hizkuntzarekin

harremana ulertzeko modua eta bizitza edo harremanak ulertzekoa.

Adibidez, hizkuntza berreskuratzen duen pertsonaren osasun mentala eta fisikoa hobetzen dela ulertzen dute, eta baita osasuntsu dagoen pertsonak hizkuntza berreskuratzeko baldintza hobekak dituela ere.

**Parekotasunak ikusi dituzu euskaldunon eta tšilhqot'inen artean?**

Hasieratik ikusi dut hori. Nire gaur egungo egoera eta bizimodua oso lotuta daude nire biografia linguistikoarekin. Nire birraitona izan zen familiako azken euskal hiztuna, nik ikasi arte. A ereduaren eskolaratu nintzen eta gero euskaltegia ikasi. Euskara biziberritzeko prozesuaren emaitza naiz, eta hori izan da nire interesa bizitza osoan. Lan mundura eramanez gero. Kanadan ere indigenengana interes horretatik hurbildu nintzen. Prozesu pertsonala egin behar dugu euskaldun batzuek, indigena batzuek bezala, trauma, aurreiritziak edo erruduntasuna gainditzeko. Eta oso

garrantzitsua da zu nor zaren jakiteko hizkuntzaren egitekoa, identitatearekin lotuta. Hori ez badago, puzzlea ez dago osorik.

**Euskal Herriatik Kanadara askoz gehiago begiratu izan da ingelesaren eta frantsesaren arteko hizkuntza-gatatzagatik eta Quebec-eko hizkuntza politikagatik. Nola lotzen da hori hizkuntza indigenekin?**

Indigenentzat frantsesa eta ingelesa hizkuntza kolonialak dira. Ez dute ulertzen frantsesaren berreskurapenarena. Beren errealitateak urrun ikusten dute. Gainera, Quebecen hizkuntza indigenen egoera ez da ona eta frantsesaren egoerarekiko sentsibilitatea duten pertsonekin ere ez dago hizkuntza indigenekiko sentikor izateko bermerik.

Kanadan hamabi hizkuntza familia eta 60 hizkuntzatik gora daude, horien %60 Columbia Britainiarrean. Oso zaila da hizkuntzen ofizialtasuna praktikara eramatea. Lurralde batzuetan Inuit familiako hizkuntza batzuk ofizialak dira. Beste lurralde batzuetan hizkuntza indigenak daudela onartzen da, baina ofizialtasunik eta hizkuntza eskubideen bermerik gabe. Migratzaileen hizkuntza asko ere badaude, egoki kudeatu beharrekoak. ●

## Jakes Txapartegi

“Pianoa konpainia izatea bezala da, ez zara inoiz bakarrik sentitzen”

Musika klasikoa, regetoia eta rocka gustuko ditu Jakes Txapartegi pianistak (Hondarribia, Gipuzkoa, 2009). Itsua da, musika klasikoa jotzen du eta poliki-poliki jazza eta inprobisazioa ikastea gustatuko litzaioke. Etxean zuen teklatuarekin Pirritx eta Porrotxen “Maite zaitut” kanta eta beste kanta batzuk inprobisatzen zituen, eta zazpi urterekin piano klaseak jasotzen hasi zen. Euskadiko Musikari Gazteen txapelketa irabazi du: “Saria eskolarena ere izan da, herri bateko eskola txiki bat mapan jarri dugulako”.

 OLAIA L. GARAIALDE  IBAI ARRIETA / ARGIA CC BY-SA



**H**ondarribiko Musika eta Dantza Eskolako gela batean daude. Bata bestearen aurrean elkarrekin egiten ari diren bidea kontatzeko prest. Pianoari bizkarra emanez eseri da Jakes Txapartegi pianista eta eskolako ikaslea. Aurrean, Esther Barandiaran pianista eta piano irakaslea dago. “Txikia nintzenean asko gustatzen zitzaidan etxean genuen teklatura alde batetik bestera zeharkatzea”, kontatu du Txapartegik pianoa hurbilduz eta tekla bat kolpatuz. Lau urterekin hasi zen kontaktu musikala egiten, eta zazpirekin pianoa jotzen. Bigarren urtetik aurrera Barandiaranekin ikasten du.

Partiturak braillez ikasten saiatu den arren, Txapartegiren ustez “oso korapilatsua” eta “konplexua” da: “Braillez sinbolo bakoitzak sei puntu ditu, eta letra bakoitzak konbinazio bat dauka. Musikaren hizkuntzan sinbolo pila bat daude, eta konbinazioak oso zabalak dira”. Horregatik, partiturak paperean gorde

“Estherrek esaten dit bere bizkarra eta sorbaldak ukitzeko, jotzen duen bitartean nik ere mugimendua sentitzeko”

beharrean, audioan gordetzen ditu. Irakasleak eskuak banaka grabatzen dizkio eta eskuak non jarri behar dituen azaltzen dio. Motelago grabatzen ditu ikasteko errazagoa izan dadin. “Entzumen oso ona eta oso aktiboa dauka”, azaldu du Barandiaranek.

Teknika horrekin gustura dagoen arren, momentu batzuetan ere kezka izan da Txapartegirentzat. ONCEk antolatutako kanpaldi batean braillez musika ikasten zuten Madrilgo bi gazte ezagutu zituen: “Esan zidaten ONCEren arazoa zela edo Euskal Herrian ez zidatela ber-

matzen braillez musika ikasteko aukera. Oso kezkatuta itzuli nintzen etxera”. Horregatik, Nobuyuki Tsujii –Nobu izenez ezaguna– pianistaren inguruko elkarrizketa bat pasa zion Barandiaranek. Itsua da baita ere, eta audio bidez ikasten du: “Nobuk ere esaten zuen oso konplexua zela, eta horrek asko lasaitu ninduen”.

Horrekin batera, gorpuzkera, hatzen digitazioa, presentzia eta beste lantzen dituzte. Kolokazioa lantzeko irakasle askok ispiluak erabiltzen dituzte ikasleek eskuak non kokatu behar dituzten ikusteko eta eskuen mugimendua lantzeko. Txapartegik teknika sentsorialen bidez ikasten du: “Estherrek askotan esaten dit bere bizkarra eta sorbaldak ukitzeko, jotzen duen bitartean nik ere mugimendua sentitzeko”. Pianoari begira jarri da Barandiaran, eta sorbalda gainean Txapartegiren eskuak dituelarik pianoa jotzen hasi da. “Sentitu nola dagoen nire besoa hemen. Sentitu. Heldu ongi”, esan dio.



Elkarren ondoan jarri, Barandiaranek besoekin inguratu du Txapartegi, eta eskuak Txapartegiren eskuen gainean jarri ditu. Pianoa jotzen hasi dira. Indarra handituz eta txikituz Txapartegiren eskuak gidatzen ditu Barandiaranek. Ostean, atzean jarri, eta hatzarekin bizkarrean presioa egitez gorputz osoko mugimendua lantzen hasi dira. Barandiaranek belarrira xuxurlatzen diolarik pasioz eta mimo handiz jotzen hasi da Txapartegi.

### EXIJENTZIA ALTUKO LEHIAKETA

Ikasleen beharrak, nahiak eta gaitasunak identifikatu, eta horren arabera errotrak proposatzen dizkie ikasleei Barandiaranek. Horregatik, duela bi urte Euskadiko Musikari Gazteen txapelketan parte hartzeko proposatu zion Txapartegiri. Duela bi urte bigarren postua eskuratu zuen, eta aurten lehena. “Aurten lasaia go goen txapelketa ezagutzen nuelako. Irabazi nuenean oso kontent jarri nintzen”, kontatu du.

Prozesuaz gozatu duen arren, nabarmendu du horrelako txapelketetan exijentzia eta konpromiso maila “oso altua” izaten dela. Gainera, gehienetan soilik kontserbatorioetako ikasleek parte hartzen dute: “Saria eskolarena ere izan da, herri bateko eskola txiki bat mapan jarri dugulako”. Hiru obra klasiko jo zituen, eta horietako batzuekin zalantzak izan zituen hasieran, baina azkenean hautuarekin kontent dago: “Hasieran bi ez nituen gustuko”. Txapelketako obrak ONCEk antolatzen duen lehiaketa batera aurkeztu ditu.

Beste beldur batzuk ere sentitu zituen, hala nola pianoa ongi egonen zen edo ez: “Gutxi falta denean kezkatzen hasten naiz; eta pianoa ez badago ongi? Eta...”. Hala ere, urtez urte urduritasuna kudeatzen ikasten saiatzen da. Publikoaz gero eta kontzienteago da: “Pianoan asko zentratzen naiz, baina publikoa ere entzuten dut, erreakzioak eta energia sentitzeko”.

Oholtzan dagoenean pianoan nola kokatzen den erakutsi du. Horretarako, pianoari begira eseri, besoekin luzera neurtu, zilborraren parean egon behar den erdiko do nota jo, eta obraren lehengo akordeak jo, bizkarra kokatu eta melodia jotzen hasi da. Gaineratu du pianoak ekarpen “handia” egiten diola: “Musika orokorrean sendagai bat da arimarentzat. Pianoa konpainia izatea bezala da, ez zara inoiz bakarrik sentitzen”. ●

### GORPUTZEKO ATAL BAT?

“Hatzak, pianoa jotzeko erabiltzen dituzalako [pianoa jo du], asko gustatzen zaidalako hatzekin laztanak egitea [eskua laztandu du] eta gauzak ukitzea, eta informazio pila bat ematen dutelako”.





# INTSUSAREN BIGARRENA



GARBIÑE LARREA  
ITURRALDE

**J**oan urteko udaberrian idatzi nuen intsusari eskainitako aurreneko artikulua eta orduan iragarri nuen bezala, testu sorta baten aurrenekoa izan zen. Sendabelar honen emana eta jakintza agortzen ez den iturriaren paretako dela nioen eta uste dut udaberriro artikulua bat idazteko gaia emango didala.

Orduan euskaldunok lintsusa, plausta, sabuka, sakuta, txutxika eta aztunpa ere deitzen diogun sendabelar honen ikuspegi antropologiko eta etnografikoak izan nituen hizpide baina gaurkoan praktiko-tasunera jaitsiko naiz, kosta aldean aurreneko intsusa loreak ikusiak baitituz eta berarekin lan egiteko garai ezin hobea baitugu hau.

Egun eguzkitsua denean eguerdi aldera loreak bilduko ditugu, ondo zabal-dutako lore buruak bakarrik, dozana bat edo. Ahuspez ipiniko ditugu erretiluan eta sukaldera eramango. Bi arrautza eta gatz pittin bat irabiatu eta aurreneko lore burua ongi igurtziko dugu, zartaginean olio berotzen den bitartean. Akaso irina ere ipini nahiko diozue, niri arrautzetan pasa ondoren txitxirio irinez biltzea gustatzen zait baina aukerakoa da. Kroketa balira bezala frijitu ongi, gorritu arte, eta azpian papera ipinitako erretiluan utzi. Mokadu oso goxoa eta osasungarria egingo dugu, hesteetarako bereziki ona. Beherakoa eragiten badu gehiegi jan ditugun seinale, halakoetan pare bat janez hastera eta pixkanaka kopurua igotzea komeni izaten da.

Kosmetiko polita egingo dugu lore hauek oliotan beratuta. Buruz behera lehortzen utzi eta lehortu berri daudela ekilore olio ekologikotan beratzea gomendatzen dut. %25ean loreak ipini eta Maria bainuan ordu erdian berotuko dugu, ondoren gau osoan dagoen bezala

utzi (beratzen jarrai dezan) eta goizean bi aldiz iragazi, lehenengo iragazki metalikoz eta gero oihal trinko bat erabilita. Kristalezko botila ilun eta hermetikoan ondo egongo da. Larruazala leuntzeko, baretzeko eta argitzeko erabiltzen da, antiinflamatorioa eta depuratzailea baita. Hala, makillajea kentzeko erabil daiteke baina baita masajerako ere. Oherakoan aurpegia garbitu eta pittin bat igurtziz gero hasiko zarete intsusa estimatzen.

Lore lehortu berriak eta orain indartsu daukagun plantaina arraren (*Plantago lanceolata*) hosto lehortu berriak kopuru berean nahastu eta infusiotarako jasotzea ere ideia ona da. Udazkenean arnas bideetako gaitz eta ajeak hasten zaizkigunerako infusio egokia dugu hau. Azken urteotan niri biekintura egitea gustatzen zait, sendabelarra eskura edukitzeko oso modu ona baita.

Tintura indartsuagoa eta immuno estimulatzailea egin nahi duenak bildu ditzala udazkenean intsusaren aleak, lehortu eta egin dezala tintura (aleak %25ean). Udaberrian egindako tintura eta udazkenean egindakoa %50ean nahastu ondoren eta horra hor erremedio indargarri on bat: probatu duenak badaki.

Sendabelar lorea eta ale helduak seguruak dira baina hostoak eta ale heldu gabeak toxikoak dira. Ez ditugu ez barne erabileran eta ez kanpo erabileran hartuko. Haurdunaldian eta edoskitzaroan intsusa ez da segurua, odolaren oxigenazioa handitzen duela badakigu eta erabateko segurtasuna emango digun ikerketarik ez dago. Aleak ez dira bateragarriak immunitatea gutxiarazteko botikekin eta kortisonarekin baina loreak, aldiz, bai. ●



## A ZE FAUNA!

# ARRAIN-ZOPARAKO, BESTERIK EZEAN, ITSASOKO IGELA



**ENEKO BACHILLER OTAMENDI**  
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

**A**monak sarritan aipatu zidan badela arrain bat, garai batean kostaldeko herrietako sukalde askotan ohikoa zena. Arrain-zopa egiteko bereziki ezaguna omen zen, oso zaporetsua baita labean erreta jateko ere. Beti platerean oroitzen dut, eta beraz, orain gutxira arte oharkabeko espeziea izan da arraindegiko erakusmahaitako *aquarium* handien parean egon naizenean. Ongi begiratzuz gero, haatik, atentzia emateko moduko itxura duen arraina da, gorputzarekiko buru handiena duena baita, ziurrenik.

Mundakan “kolo”, Lekeition “kukutz”, Getarian “borondina”, Hondarribin “pexpelanta”... Guztientzat arraigorri modura ere ezaguna, halakoa baitu bere kolorea. Gure kostaldera maiatza-ekaina aldera hurbiltzen da gehien, arrautzak errutera. Haietatik jaioko diren fase goiztiarrak (larbak) pelagikoak dira, urzutabeen jitoan bizi baitira lehen asteetan. Baina behin igeriketarako ahalmena eskuratzean, itsas-hondora hurbildu eta espezie bentoniko bilakatzen dira eta bizi osoan itsas-hondoarekiko harreman estua mantentzen dute. Horrela, urte osoan hondo hareatsu nahiz lohitsueta biziko dira, gehienetan modu bakartian. Beharbada haien artean elkartu nahi dutenean, edo atzemandako arriskuak uxatzeko, igelen tankerako “kroa-kroa” soinua egiten dute, haien gas-puxikari lotutako muskuluak mugituta. Arrantzaleek diotenez, arraigorriaren deia uretatik ateratzen denean ere entzun daiteke! Hala omen da, arrantza-arte artisauak erabilia (mallabakarra edota tresmaila) arrantzatzen dituzten arraigorriak es-



ENEKO BACHILLER OTAMENDI

kuz eta banaka askatu eta ontziratzeko orduan.

Urte osoan agertu daitekeen arren, espezie hau kopuru txikitik porturatzen da, haien izaera bakartiaren erakusle; sarritan familia kide diren gainerako triglido txikiagoekin batera, hala nola kukua (*Chelidonichthys cuculus*), putxano zirindatua (*C. lastoviza*) eta kurrukurua (*Trigla lyra*). Arraigorria ezagutzen dutenek ordea, ongi bereizten dute, erosketa garaian bederen. Arraigorriaren burua da haietan handiena, kopeta zabal eta ahorraino doakion malda zuzen adierazgarriarekin. Begiak ez dira oso handiak, buruaren aldean; bai ordea bere ahoa, izugarri zabaldu daitekeena, harrapakin handiak irensteko. Buruaren amaieran, albo banatara, hegoen antza duten hegats zabalak ditu, ertz urdinez apainduak – horrek azal dezake “golondrina”, hau da, erdaraz “enara” modura ere ezagutzea, kostako hainbat herritan-. Eboluzioak hegatsetatik haren erradioetako hiru askatu ditu, egun hankak bailiran hon-

doetako hondarreen sartzen dituenak. Ibiltzeko diruditen arren, haren harrapakinen mugimenduak atzemateko erabiltzen ditu: izan karramarro, bestelako krustazeo, arrain edo molusku, kaskoa betiko atxikita duela dirudien buru honen harrapakin gogorrak irensteko nahiz txikitzeko moduko baraila sendoak dituela adierazten digu.

Itsas-hondoko bizitzagatik arrain zuria da, eta hala du barneko haragia ere, zuria, bai, koipe gutxikoa, baina beste askorena baino trinkoagoa. Itsaskiz elikatzeagatik, ordea, arrain hau zaporetsuagoa da: zapoaren maila berean egon gabe, baina duen haragiaren antzekotasunagatik hark bezain emaitza goxoak lortzeko parada emango diguna. Artisau-arrantzaleek zein gure aiton-amonek ongi ezagutu duten eguneroko arraina da; bertakoa eta osasuntsua. Gainera, ziurrenik ezezagutzagatik, beste asko baino merkeagoa. Beraz, ezagutu, zaindu, baloratu eta noski, dastatu. Edo atzekoz aurrera, berdin da. ●

## ARRAIGORRIA

*Chelidonichthys lucerna*

**TALDEA:** Ornoduna / Arraina.

**NEURRIA:** 30-75 cm.

**NON BIZI DA?** Ozeano Atlantikoko ekialdean, Norvegiatik Afrikara, eta Mediterraneoan; euskal kostaldera maiatza-ekaina aldera hurbiltzen da bereziki, arrautzak errutera.

**ZER JATEN DU?** Itsas-hondo hareatsuetako krustazeo, arrain eta moluskuak.

**BABES MAILA:** Ez dago babestuta.

# LURRA ELIKATU, GUK JAN



**JAKOBA ERREKONDO**  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Lurrari begira jartzea zaila da. Kosta egiten da. Landareekin lan egiten duenak maiz haiek bakarrik ikusten ditu. Etekina, uzta, ekoizpena, mozkina, errebenioa, emana, azken zurienean "porru-hazia" bezalako hitzak dira nagusi lur-langileen hizkuntzan.

Artzain txakolingile bizkaitar batekin aritu naiz bart eta bere iritziz txakolina egiteko hartzen den urte luzeetako bideko une garrantzitsuena mahastia non kokatu aukeratzea da. Sail nahiko izanagatik, han edo hemen non landatu, tokia eta lurraren ezaugarriak dira gako nagusia.

Porru-haziez gain, gero eta gehiago entzuten da "lurra" hitza. Bizi Baratzearekin han eta hemen nabilenean, "tomateak ongarrizera goaz" edo "patata jango duen simaurra nola zabaldu" edo "sagastia kortaiztu beharko genuke" edo "arrosatzeak noiz luhumendatu behar ditut" edo antzekorik entzuten dudanean inon inoiz esatea ahazten ez zai-

dana zera da: ongarritu, luartu, luhumendatu, sastu, kortaiztu, simaurtu lurra egingo duzu, lurra osatzera zoaz eta gero, agian, landareari emango dio. Guk landareen alde egin dezakegun lan nagusia lurraren biziari eustea da, eustea eta ahal izanez gero biziagotzea.

Lurra hiru Mz osatua dago: azpian duen Minerala, gainetik doakion Materia organikoa eta bizia ematen dioten Mikroorganismoak. Bizi hori sustatzea da ongarriketaren helburu nagusia; zenbat eta bizi gehiago, orduan eta errazago mugituko dira mineralak eta landareak errazago hartuko ditu, hobeto elikatuko da. Bizitza hori, mikroorganismoen kopuruak eta horien kemenak, bizitasunak eta bizkortasunak haziko edo zapuztuko dute.

Lurrean izaki misteriotsu eta lilurgarri ugari bizi da. Batzuk, makroorganismoak, begi hutsez ikus daitezke, hala nola zizare, armiarma, inurri; tamainaertaineko eta txikiko fauna ere hor bizi



## Amillubi proiektuaren aurkezpenak

**Zarautz:** Maiatzak 2, 18:30ean.

**Hondarribia:** Maiatzak 21, 11:00etan BDSKoopan.

**Donostia:** Maiatzak 23, 18:00etan Teila Fabrikan.

da, akaro, nematodo, protozoo, eta ttikietan ttikien onddo, bakterio eta abar. Lur metro koadro batean 1.000 fauna espezie aurki ditzakezu eta "eskukada" batean mikroorganismo gehiago dago planetan jendea baino.

Esaterako, lur metro koadro batean, 350 milioi bakterio espezie, 63 protozoo espezie, 4,5 milioi ameba, 50 ehunzango, 500 zizare, 1,9 milioi nematodo, 745 termita eta 2.150 inurri zenbatu dira. Horra, lurrek munduko bioaniztasunaren laurdena altzoan dute eta bertan bizi diren espezie guztiek beren artean eta landareekin eman-hartu biologiko konplexuak eraikitzen dituzte eta elkarrekin gure hankapeko ekosistemetak mantentzeko eraldatu eta birzirkulazio bidean jartzen dituzte.

Landareen egoera ulertzeko, beren arrakasta edo porrota atzemateko, lurrera begiratu. Eta noski, jan nahi badugu lurra elikatu, lurra bizitu. Eman eta hartu. ●

Eskukada bat lurrean mikroorganismo gehiago dago planetan jendea baino.



## TXARAMELA

# PASTA EKOLOGIKOA, ORTUKO BARAZKI ETA ESPEZIEEKIN EGINA



GARAZI ZABALETA

**D**uela hamabi urte pasatxo eza-gutu zuten elkar Izaskun Urbaneta Ocejok eta Ainara Baguer Gonzalezek, ingurumen hezkuntzako programa batean lanean ari zirela. Garaian, lurretik hurbilago egoteko gogoia zuten biek, teoriatik praktikara pasa eta proiektu bat martxan jartzekoa. “Amets moduko zerbait zen hasieran, ideiak botatzen hasi ginen, eta hor irten zen ur errotek Bizkaian izana zuten garrantziaren kontua”. Errotarekin lotutako proiektu bat egokia iruditu zitzaizkien ingurumen hezkuntza egiten jarraitzeko, eta hasierako amets hari pixkanaka forma eman eta Txaramela pasta agroekologiko proiektua sortu zuten.

## ETA, ZERGATIK EZ PASTA?

Ur errotekin lan egiteko ideia horri bueltak, ogia, taloak eta antzekoak bururatu zitzaizkien hasieran. Baina Italian egon berri zen lagun batek planteatu zien: “Eta zergatik ez duzue pasta egiten?”. Urbanetak aitortu du ez zutela inoiz pentsatu aukera horretan, baina lagunak botatutako ideia pixkanaka sakontzen hasi eta aurrera egitea erabaki zuten. “Ortua egin eta pasta ekoitzi nahi genuela esan genuenean inguruan, hasierako erreakzioa ez zen onena izan: lan finkoa edukita, nola utziko genuen bada?”. Gerora, ordea, inguruko partetik babes osoa izan dutela aitortu du. “Polita da, gainera, baserriko nire aitite eta amamak gara batean artoa eta garia ehotzen zituzten errota berean hasi baikin gu ere ehotzen”, gehitu du.

Pasta ekoizteaz gain, ortua ere egiten dute Txaramelako kideek Muskizen. Lehen urteetan otzarak egiten zituzten, eta tartean geldialdi bat egon bazen ere, orain berriz ari dira jarduera horrekin.



Izaskun Urbaneta Ocejok eta Ainara Baguer Gonzalez obradorean.

“Ortuko barazki eta espeziak bi gauzetarako erabiltzen ditugu: pasta egiteko eta otzaretan sartzeko”, dio. Izan ere, osagarri desberdin askoko pastak egiten dituzte Txaramelan: erremolatxarekin, berakatzarekin, ziazerbarekin, kalabazarekin, albahakarekin, oreganoarekin, kurkumarekin, zigilu ekologikoarekin ari dira lanean, baina hortik harago doa nekazaritza ulertzeko haien modua: “Agroekologiaren barruan kokatzen dugu gure ekoizpena”. Garia eta zerealak Nafarroako eta Huescako ekoizle txikiei hartzen dizkiete.

## ELIKADURA ETA INGURUMEN HEZKUNTZA ESKOLA

Hurbileko azoka, denda eta kontsumo taldeetan saltzen dute batik bat, baina

eskola eta jatetxeren batean ere bai. Aurrera begira badute beste proiektu bat esku artean: pastarako saltsak eta ma-neatzaileak egiteko obradore bat.

Eta, ekoizpenarekin batera, proiektuaren bigarren ardatza izan da hasieratik ingurumen hezkuntza. “Elikadura eta ingurumen hezkuntza eskola” dute martxan, eta hilero elikadurari eta ingurumenari lotutako tailerrak egiten dituzte, haur nahiz helduekin. “Sumatzen dugu gero eta kontzientzia handiagoa dela gaion inguruan, baina, agian, ez gutziz guk nahiko genukeen ikuspegitik. Norbere osasunari asko begiratzen zaio gaur egun, eta ez hainbeste ingurumenari. Argi dago agroekologikoa kontsumitzea hobea dela osasunerako, baina, nahi genuke horretan bakarrik ez gelditzea”, amaitu du. ●

## ZIBURUKO AZOKA



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA



IKUSI MIKUSI

## Doinuele azoka sarearen egutegia

**Literaturia Zarautzen**, maiatzaren 24tik 26ra. Literatura azoka eta ekitaldiak.

**Ziburuko azoka**, ekainaren 1ean. Liburu eta disko azoka eta ekitaldiak.

**Hernaniko azoka**, urriaren 5ean. Liburu eta disko azoka eta ekitaldiak.

**Ikusi Mikusi Saran**, urriaren 11n eta 12an. Haur eta gazte literatura eta ekitaldiak.

**Sormene Galdakaon**, urriaren 30ean. Literatura azoka.

**Lazkaoko azoka**, abenduaren 13tik 15era. Liburu eta disko azoka eta ekitaldiak.

## Gure txikitasunean

## ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Uteroko zita bihurtzen den zer bait antolatu duen askok sentituko du handitzearen bertigoa. Txikitik eragitea helburu dutenek behintzat bai, edo txikian aritzen ohitutakoek. Formatu txikian ondo atera denak, normalean, gertukoa izateagatik du arrakasta, familia girokoa, mimoz egina... Eta handitzeak hori dena arriskuan jartzen du. Nola mantendu izaera goxo hori ekitaldia handitzen doan bitartean? Ba al dago horren orekarik? Ze helbururekin handitzen dugu, zer irabazi eta galtzeko? Bosgarren edizioa du Ziburuko Euskal Liburu eta Disko Azokak eta hasiak dira gai hauetaz hizketan.

Ekainaren 1ean, larunbatarekin, egingo da ARGIAk eta Baltsan Elkartek elkarlanean antolatzen duten azoka. Ziburuko azoka Doinuele Euskal Herriko euskarazko liburu eta disko azoken sarean dago, eta jada, sare horretako bi antolatzailek, urte honetan, bi azoka eginak dituzte, bata Baztanen, eta bestea,

Azkoitian. Ziburukora itzultuta, urtez urte egiten du gora bai argialetxeen presentziak, baita Ziburuko plaza betetzen duen jende kopuruak ere, eta berrikuntza txikiak egiten dira edizio batetik bestera. Hala azaldu digute antolatzaileek: "Balorazioa egiterakoan argi zen, tipitik hasi zena garatuz joan da eta handitu ahala tipi gelditu, denboraz eta eremuz! Nola egin Azokari hedadura gehiago emateko aldi berean bere neurria atxikita, bere hurbiltasun eta gozotasuna zainduta?". Aldi berean, badute beste gogoeta bat ere, eta da: Azoka Ziburun egiten bada ere, inguruko herrietako euskaltzaleen bilgunea da, beraz, nola itzuli auzo herri hauei Azoka egunari ekartzen diotena? Horren bueltan dator aurten Azokaldia.

## MOTORRAK BEROTZEN

Maiatza osoa hartuko du Azokaldiak. Dena egun berean kontzentratu beharrean, azoka aurreko asteetan inguruko

herrietan animazio eta ekitaldiak antolatu dituzte, "horrela euskaraz bizi nahi dutenei eta euskarazko literaturaz eta kulturaz gozatu, parada bat gehiago eta hurbilagoa eskaini nahi diegu, arnasmune bat gehiago", azaldu dute antolatzaileek. Gainera, aitzakia horrekin inguruko herrietan euskaraz bizitzen ari diren talde eta elkarteekin saretzeko balio die.

Lau hitzordu izango dira: Ziburun bertan, maiatzaren 2an Baltsan elkarrean, 19:00etan, *Mirande, film bat egiteko zirriborroa*, Josu Martinezen dokumental emanaldia; maiatzaren 7an Azkaineko Bil Tokin, 19:00etan, *Antzerkiaren labirintoan*, Ander Lipusen liburu aurkezpena; maiatzaren 17an Urruñako Berttolin, 19:00etan, *Ipuina engainua da*, Iban Zaldia eta MICeren irakurraldi musikatu; eta maiatzaren 23an Donibane Lohizuneko Mediatekan, 19:00etan, *Lapurdi itsas hegiko euskara*, Maitena Duhaldereen tesiaren aurkezpen-hitzaldia. ●

# Gilen Konkistatzailearen oinordeko aberatsak



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**H**astings (Ingalaterra), 1066. Gilen I.a Normandiako dukearen gudarosteak Harold II.a erregearen tropak mendeen hartu zituen, eta tronua eskuratu zuen. Gilen I.a Konkistatzailea 1087 urtera bitartean izan zen errege.

Normandiarren konkistaren ondorengo erregealdi horretan, matxinadak matxinada, administrazio eraginkorra antolatu eta sistema feudala zorrotz ezarri zuen Gilenek. Koroak Britainiar Uharteetako lurren jabetza aldarrikatu zuen eta erregeak lurraz zatitu eta normandiar noble leialen artean banatu zituen.

Kevin Cahill ikerketa kazetariak Britainia Handiko lurren jabetzari buruzko ikerlana argitaratu du berriki: *Who Owns Britain* (Nor da Britainia Handiaren jabea). Eta bertan dio Britainia Handiko populazioaren %1ek baino gutxiagok duela Erresuma Batuko eta Irlandako lurren ia %70aren jabetza. Zehazki 160.000 familien esku dago lurren %66; bestela esanda, populazioaren %0,3 da Britainia Handiaren bi herenen jabe. Eta familia horien artean gehienak Gilen Konkistatzailearen armadako nobleen oinordekoak direla ikusi du Cahillek ikerlanari esker.

Gobernuak, sistema ekonomiko eta politikoak etengabe aldatu dira mila ur-



THE BRITISH LIBRARY BOARD

tetan, baina ondasunak gutxi batzuen esku iraun du, hau da, sistema berriek banaketa desorekatu zaharra indartu besterik ez dute egin. Eta, esan bezala, lurjabe gehienak oraindik aristokraziako kideak dira, baina gainera Ingalaterrako Eliza, errege-etxea eta zenbait enpresa handi ere lurjabe nagusien artean daude. Horrez gain, Cahillek hainbat oztoporekin egin du topo ikerketan ari zela eta azpimarratu du lurren jabetza-

ren inguruan gardentasun falta handia dagoela. Lurren Erregistro ofizialetik kanpo daude oraindik hainbat jabetza.

Cahillek dio gai hau interes historikoko hutsetik haratago doala, ez dela soilik arazo etikoa, eta ondorio politiko, ekonomiko eta sozialak dituela. Alegia, duela mila urte Gilen erregeak egindako banaketak gaur egungo arazo askori eragiten diela: etxebizitzaren krisiari, ingurugiroari, desoreka sozialari... ●

## Kodizerik zaharrena enkantean

Crosby-Schøyen kodizea inoiz aurkitutako Bibliako testuen transkripzioz zaharrena da eta datorren ekainaren 11n Christies etxeak enkantean salduko du, 2,6 eta 3,8 milioi dolar arteko irteera prezioarekin. Testua Egipton idatzi zuten eta bertan aurkitu zuten egiptoar nekazari batzuek 1952an, Dishna hiritik gertu. Horregatik egiptoarrek Dishna kodizea esaten diote piezari.

Baina ofizialki kodizearen jabe izan diren bildumagile europarren izena dauka kodizeak. Eta ez da kasu bakarra; kodizea Bodmer papiro bildumaren parte da eta izena Martin Bodmer bildumagile suitzarrak erosi zituelako jarri zioten. Kasu ezagunagoa da Partenoiko marmolena; Lord Elgin espoliatzailearen izenez ere ezagunak dira pieza horiek. ●



# GANGSTER MARITXUEN BANDA

“Gay azpituak beti hobetzen du film bat”

Quentin Tarantino

Juan Dos Ramos idazle eta Alex Tarazón ilustratzaile valentziarrek *Gangsters Maricas: Extravagancia y Furia en el cine negro* (Gangster marixuak: nabarmenkeria eta indarkeria zine beltzean) saiakera liburua argitaratu dute, zeinean gangster marixuen pertsonaia profilak aztertu dituzten AEBetako eta Britainia Handiko zinean. 40tik gora film xehatu eta 100 ilustrazio inguru egin dituzte.

**JULEN AZPITARTE**

**G**angsterren mundua bereziki maskulinoa da, eta agerikoa da testosteronaz betetako giroetan, besteak beste kriminalen bandetan, presondegietan, zentro militarretan edo barnetegietan, oso ohikoa dela kanon heterosexualetik oso urrun dauden emozio eta dinamikak gertatzea. Anbiguetatea, gainera, genero beltzaren ezaugarri garrantzitsuenetakoa da, zeina pertsonaien sexualitatearaino hedatzen den. Hori dela eta, unibertso itzaltsu horretan emakumea ez da onik atera.

Dos Ramosek irakurketa hauxe egin du: “*Young Yakuza* (Jean-Pierre Limosin, 2007) dokumentalean, kriminal batek epailearekin izandako elkarrizketa bat oroitzen du, epaileak zera galdetzen diotenean: ‘Zertan datza yakuza izatea?’, eta hauxe da bere erantzuna: ‘Gizontasuna probatzean’. Testigantza baliotsua da, bere sexualitateaz seguru dagoen pertsona batek ez duelako inori ezer erakusteko beharrik. Pertsonaia horien misoginiaren eta doako indarkeriaren erakustaldien atzean pulsio misterioitsuak gertatzen ziren pistak eman zizki-



guten gidoilari, zuzendari eta aktoreek, 1930eko urteez geroztik; hain justu, zinean lehenengo gangsterrak agertu zirenean”.

Hartara, eta gezurra badirudi ere, testuinguru homosexuala betidanik existitu da zine beltzean, batez ere AEBetan. Baina hain kamuflatuta dago oharkabe igarotzen dela, batez ere *Hays* kodearen eraginagatik. Motion Picture Production Code ekoizpen zinematografikoko

kode bat izan zen *Hays*, arau murriztailez osatutako zentsura sistema bat, zeinak zehazten zuen zer ikus zitekeen eta zer ez Ameriketako Estatu Batuetan. William H. Hays lider errepublikanoak sustatu zuen, eta 1934tik 1968ra egon zen indarrean.

Ezkatuko gay adierazpen horiei erreparatzeko baina, begi zorrotza izan behar da, eta filmak dozenaka aldiz ikusi. Hala, marixu-itxurako imintzio bategan, janzkeraren dotoretasunean, lurrrin zehatz baten gehiegizko erabilera edo pertsonaia batek ahapetik kantatzan duen Doris Dayren kantuan antzematen da osagai homosexuala.

Egunkari formatuko hiru bolumenetan separatu dute *Gangsters Maricas: Extravagancia y Furia en el cine negro* liburua: lehenengoa, AEBetako zinearen inguruan ardatzen da, 1930-1950 tartean, generoaren klasikoak sortu zirenean baina, era berean, pertsonaia homosexualak pantailan agertzea debekatzan zuen *Hays* kodea ere ezarri zenean; bigarren atalak 1960-1970 urteetan Britainia Handian egindako kriminalei buruzko zinea du aztergai; eta hirugarren zatia gangsterren irudi berriaren murgiltzen da, besteak beste, David Lynch edo Quentin Tarantino zinegile postmodernoen eskutik. Kronologia horri jarraiki, zine beltz homosexualaren adibide argigarri batzuk zehaztu ditugu.

## THE MALTESE FALCON (JOHN HOUSTON, 1941)

Filmaren izen bereko eleberraren egile Dashiell Hammeti bere editoreak eskatu zion kontakizuneko kutsu homosexuala “baretzeko”. Baina John Houston zinegileak testuko anbiguotasun horiek





guztia txertatu zituen bere filmean, gehienbat pelikularen oinarrian dagoen eskulturaren atzetik dabiltzan hiru kriminalen maneratan eta estetikan, Humphrey Bogart detektibea inguratu-ta sentitzen zen bitartean.

Gaizkile horien artetik Peter Lorre aktorea azaleratzen da. Dos Ramosek honela dio: "Hemen zine beltzaren beste arauetako bat betetzen da: bigarren mailako aktoreak maritxu gisa aurkeztea, detektibe protagonistaren gizontasuna azpimarratzeko. Raymond Chandler berak ere esaten zuen baliabide oso ohikoa zela nobela beltza idazten zuten autoreen artean".

Peter Lorre aktoreak antzezlan bikaina egiten du Joel Cairo kriminalaren gorputzean: "Antzokietara joatea gustatzen zaio, bere itxuraz gehiegi arduratzen da, eta uzten duen gardenia arrastoari buruz Spadek Bogart eta bere idazkariak iruzkinak egiten dituzte". Horrekin batera, oso esanguratsua da Lorrek nola laztantzen duen bere bas-toia Bogarten aurrean.

### **GILDA (CHARLES VIDOR, 1946)**

Rita Hayworthek antzeztutako dantza-ikuskitun sentsualagatik ezagun izanagatik ere, balizko maitasun-triangulua bisexuala ere planteatzen du filmak. Hasierako eszenari erreparatzea baino ez dago: Buenos Aireseko portu batean, Glen Fordek antzezten duen pertso-

naiak gangster batekin egingo du topo. Azken horrek bastoi bat darama, eta horri erreferentzia eginda, "lagun fidel eta esanekoa da" dio gangsterrak, "adiskidetasunaz dudan iritzia nola". "Bizitza oso alai zurea", erantzuten du Fordek, zeinak "gay" adjektiboa erabiltzen duen, "alaita" edo "dibertigarria" esateko. Bien arteko adiskidetasuna loratuko da berehala: "Norberaren zortea egiten duena, nire gisara, bere parekoak ezagutzen ditu".

Dos Ramosen arabera, portuan elkartzen dira, "cruising" gunea antonomasiar, kriminalez eta marinelez inguratuta". Honela jarraitzen du analisisian: "Gangsterra bastoia altxatuta agertzen da eszenan, ereizio sinbolo gisa. Ligatu nahi duen gizonari karrera oso azkarra eskainiko dio hanpan. Maitasun-triangularen dinamika ere oso dibertigarria da. Mafiosoak badaki Ford gozokitxo heterosexuala dela; beraz, bastoia dakar besotik aitzakia gisara, hirurak elkarrekin buka dezaten. Eta zalantza moralik egon ez dadin, gaizkilea bere bastoia sartuta hilko da: sartzen duena sartuta zenduko da".

### **THE KRAYS (PETER MEDAK, 1990)**

Kray bikiak 1960ko urteetako Londres hiriko mafioso ezagunenak izan ziren. "Gure urterik onenak izan ziren. *Swinging sixties* izena eman zieten. The Beatles eta The Rolling Stones taldeek pop

musika menderatzen zuten, Carnabyk moda joerak zehazten zituen... eta nire anaiak eta nik Londres gobernatzen genuen". Ronnie Krayk esana da *My Story* autobiografian.

Biki gaizkileei buruzko lehenengo *biopic* horretan, Spadau Ballet musikataldeko Kemp anaiak izan ziren aktore protagonistak. Ron, homosexuala, eta Ray anai mafiosoak biziki sutu ziren filma ikusi zutenean, batez ere filmak ematen duen bikien amaren irudia tarteko. "Amak ez zuen biraorik esaten", esan zuten suminduta. Filma, hain justu, bikien eta amaren arteko harremanean oinarritzen da, semeek txikitzen gehiegizko babesa jaso zutelako.

Filmak, bestalde, ez du Ronen homosexualitatean sakontzen, bere izaera komertziala tarteko. Bikiak pop ikurrak izaki, homosexualitatea baztertu eta filma publiko zabalari eskaini nahi zitzaioela dio Dos Ramosek: "Nahiz eta ikus-entzuleek jakin Ron homosexuala dela, nahiago dute horretan gehiegirik ez sakondu. Aurkariak nola torturatzen dituzten ikusi nahi dute, eta hori bai eskaintzen duela filmak".

### **RESERVOIR DOGS (QUENTIN TARANTINO, 1992)**

Tarantinoren filma eta Guy Ritchieren *Lock & Stock* hipermaskulinitatearen ikur gisara aurkezten ditu Dos Ramosek. Hala, zakilekiko fetitxismoa oso agerikoa da Tarantinoren estreinako filmaren lehenengo eszenan: Madonnen *Like A Virgin* kantuari esanahia aztertzen duten bitartean, uneoro aipatzen dituzte zakilak, buztanok dastatuko balituzte bezala.

Zinegileak aipatzen duen azpitemu homosexuala, halaber, Mr. Orange (Tim Roth) eta Mr. White (Harvey Keitel) pertsonaien arteko harremanean antzeman daiteke. Behin lapurreta hondatu ondoren, zuriak odolusten ari den laranja besarkatzen eta kulunkatzen igaroko du pelikula osoa: "Ez gara izaera gay batez ari bere literaltasunean, baizik eta giro hipermaskulinizatueta bizi diren gizon horiek sortzen dituzten loturez baino, uneoro arriskuan, nortaz fidatuko zaren beti beldur. Hain kritikoak diren egoerei egin behar diete aurre, non emakumeek oso pisu txikia baituten eta bestelako dinamika emozionalak sortzen baitituzte". ●



# Hitz gezidunak

BAIZIK ETA EZKON-FESTA	GOBERNUAK EZARRITAKO DEBEKU LISTU	UZKUR, ZAPALDU	DANI BLANCO / ARGIA CCBY-SA		ATSEDEN GARAI, LANUZTE APALIK	ORDEA PERTSO- NAIAREN ABIZENA	MADARIKA- ZIOA ERBINUDE ZURI
MUSIKA MOTA DAGO	MODU ATZIZKIA ZERBAITI EKITEN ZAION ALDI	HARAGIAREN MINTZA SENDABELAR USAINTSU	BASELIZA ZUZENA, 90 GRADUKOA DA	ERASO, BULTA NAFARROAKO MENDIA	GARI SORTA EZORDU	AZKENA ETA LEHENA SETATI, TEMATSU	NAFARROAKO MENDIZERRA
LEIALTASU- NIK GABE AINTZIRA	ASIAKO ESTATUA APIAKO HERRITAR	BAT-BATEAN AHAL DEN ONGIEN, AZKARREN	GAZITASUNA GALDU HERRI BATEN GRAFIKO	HOBERA IBAIAREN BOKALEA	SAMIN, OINAZE OSO, ERABAT	500 ERROMA- TARRA EZTAINUA- REN IKURRA	
BIZKAIKO HONDARTZA	TREBETASUN JOKO ZAKURRA	ADIA, KEXUA GALDE PARTIKULA	ONTZAT EMAN BOKAL PUNTUDUNA	SUIL MOTA			
MUSUA, UMEEN HIZKERAN ILEA							
PERTSO- NAIAREN IZENA KIROL LEHIA							

## Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

1			4				5	2
4	2		5	8				3
	6		2				1	
			7	6		3		1
5		1			2	6	4	
	3	6	1	4				
	1			5	7			
		2	6		8	7		
7		9	3					

## 5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- Hozkada, haginkada.
- Landare mota (pl).
- Zerbaitek izatasuna hartu; jai.
- Katu ar.
- Errenta, alokairu.


## EBAZPENAK

- KOSKA
- OLOAK
- SORTU
- KATAR
- AKURRA

6	8	1	8	7
3	4	2	6	1
5	5	8	7	9
6	1	8	9	5
4	7	2	3	4
8	2	3	6	7
3	6	1	4	9
7	5	7	2	6
9	8	4	7	6
6	3	5	3	7
8	6	9	3	4
4	2	7	5	1
1	6	8	5	2

V	N	I	L	J	V	I	O	I	L	V	A	R	L
I	S	E	N	E	N	O	N	V	A	D	D	V	
D					H	U	V	A	O	I	L	B	
N	I	M	R	A	R	L	L	B		V	P		
V					O	E	P	E	L	V	N	V	K
					U	Z	A	Z	G	A	K	I	
V	Z		Z		Z	N	V	Z		U	K	V	L
O	V	Z	V	L	V	I	E	S	L	E	S	D	
V	A	I	T	A	R	E	M	E	G	O	T	V	A
R	O	L	D	A	R					K	N	P	
I	L	K	I							V	L	E	Z
B											Z	E	



## Beste 40 urtez esperoan egon nahi ez baduzue

✂ IÑIGO SATRUSTEGI 📷 IRANTZU PASTOR

**N**ire belaunaldiak ikusi ditu hiru aita santu, pandemia, *gameboy color*-etik hasita PlayStation 5erako kontsola guztiak eta gatazkaren amaiera. Nire belaunaldia sortu gabea zen 1986an Halley pasa zenean. Ez dugu ikusteko aukerarik izan, gaurdaino. Gayerre Antzokian izan naiz Lesakako Led Silhouette dantza konpainiaren azken lanaren estreinaldian. Monumentala.

Argiak artean piztuta eta teloa igo gabe zirelarik hasi da musika, eta hain justu horrekin jolastu dira iluntasuna aretora ekartzeko. Ez dut antzoki *doto-reetan* halakorik ikusi orain arte. Izaki espazial bat sartu da kalabozo modukoan, aurreko hormaren atzean zerbait dagoela dirudi. Beltzera egin du bat-batean eta argi berdea segituan: zortzi izaki gela barruan. Sims-ak dirudite, eta hala mugitzen dira hara-hona. Imagina ezazue pelikula distopiko bat edo *Stranger things*. Kamera bat dago hor.

Eta telebista bat justu kontrako paretan. Ohartu direla dirudi: agur egin diote kamerari, elkarrri ere bai. Mesfidantza ere adierazi dute. Hasieran izaki independenteak dira, eta gero eta biziago dirudite, talde bihurtu dira konturatzerako: bat egin dute.

Hotsak eta zaratak hormaren beste aldean. Zer dabil hor? Ihes egiten ahalegindu dira. Eszenek aurrera egin ahala, gero eta gauza gehiago gertatzen hasi dira antzokian. Alarmaren argi laranja sorginduta ditu. Berriz ere izaki espazialaren agerpena, astronauta modukoa. Beren kabuz atea zabaltzea lortu dute, eta kontrako paretan zulo bat ireki da. Alde egin edo geratu. Bi zuloak konektatuta daude: multibertsoa, mundu paraleloak, zulo beltzak, ispilu efektua. Ihes egin nahi baina ezin. Liluraren eta larritasunaren arteko zera bat. Zuloa itxi da, eta berriz ere astronauta.

### HALLEY (LED SILHOUETTE)

**NOIZ:** apirilaren 12an

**NON:** Gayerre antzokian (Iruñea)

Horiek guztiak oholtzan gertatzen ziren bitartean, hotsik txikiena ere ez da entzun ikusleen artean. Zero. Ez-tandaren aurreko tentsioak hartu gaitu denok. Are, dantzarien zaratak ere oso noizbehinkako zerbait dira, kometa bezala. Musika ozena bai, baina zeinen isilka mugitzen diren dantzariak mugimendu bortitzenetan ere.

*Halley* benetan ikusgarria da zentzu guztietan: dantza gehiegi ulertzen ez baduzu ere, kanpoan eguraldi ederra egiten duelako perezia ematen badizu ere, eszenografia zoroa duelako, beste mundu baterako atea zabaltzen duelako eta ikuskizun modura monumentala delako. Izen bereko kometak 2061ean zeharkatuko du berriz gure zerua, eta martxa honetan ez dakit Lurra bera suntsituta egongo ez ote den. Ez zaitezte geratu beste ia 40 urte horren esperoan, probestu aukera: joan zaitezte lesakarren *Halley* ikustera. ●



## LIBURUA

# Aitona hil egin da?



TXALPARTIA

## AITONA FLOREN

KARMELE MITXELENA

IRUDIAK: JOKIN MITXELENA

ELKAR, 2024

XABIER ETXANIZ ERLE

**K**armele Mitxelenak *Marrubizko uda* ipuina argitaratu zuen Xaguxar bilduma honetan 2022an. Liburu hartan, neska-mutiko batzuen udako abenturak kontatzen ziren. Orain, aldiz, *Aitona Floren* liburua istorio askoz barnekoia dugu, Danel mutiko protagonistaren ikuspuntutik kontaturiko istorio hunkigarria.

Danel aitona zain dago eskolako atarian. Beti etortzen da bila, baina oraingoan asko atzeratzen ari da, eta hotz handia egiten du. Danelek presente ez dagoen aitona hitz egiten dio: "Jo, aitona, Ipar Poloan ere ez du horrelako hotzik egiten. Ehun mila milioi aldiz esan dizuet etxera bakarrik itzul naitenkeela". Horrela hasten da hizketan; horrela hasten da liburua. Eta, ondoren, Danelek aitona, honen txakurraz, eta

aitonarekin duen harremanaz ari zaigu, harik eta etxera bakarrik abiatzea erabakitzen duen arte. Bidean fruta-dendako Eduk esango dio aitona ambulanzia batean eraman dutela ospitalera.

Aitonaren heriotzaz eta doluaz ari zaigu egilea liburu hurrengo kapituluetan, nola ikusten duen Danelek aitona heriotza, tanatorioa, erraustak, aitona etxera eginiko bisita... Oso modu goxoan, haurren ikuspegitik, kariñotik eta egunerokotasunetik. Horretan lagungarria da liburuaren egitura, hamabi kapitulu laburretan, bakoitzean gertakari bat, kontakizun bat, gogoeta bat azalduta.

Baina horretaz guztiaz gain, liburuan badira beste kontu batzuk zeharka agertzen direnak: familia monoparentala, aitona-amonen laguntza haurrak

zaintzen, guraso eta seme-alaben arteko harremana... Hots, gure eguneroko gizariteaz gogoeta egiteko aukera eskaintzen diguten kontuak.

Jokinek bere estilo ezaguneko ilustrazioen bidez, eta Karmele Mitxelenak narratiba zaindu eta zehatzaren bidez, liburu gomendagarria eskaintzeaz gain, arazorik gabe irakurtzen eta istorioan berehala barneratzen zaituen obra egin dute. Kontu askori buruz ari dena, baina, batez ere, irakurlea hasieratik amaierara iritsi arte istorioarekin jarraitzera animatzen duen obra. Pena, irribarrea, malakoak, eta une hunkigarriak bizi ditu irakurleak liburu 60 orrietan zehar, baina sentimendu horien guztien gainetik bat gailentzen da: maitasuna. Danelek aitona dion maitasuna. ●



MUSIKA

# Puccini: gogokoen artean gogokoena

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

**M**aiatzaren erdialdean OLBEk bere opera ederrenetako bat, *La Bohème*, eskainiko digula aprobetxatuta, eta aurten bere heriotzaren mendeurrena betetzen dela kontuan izanda, Giacomo Pucciniren azalpen biografiko/artistiko bat ezinbestekoa dela uste dut.

Jakina, opera maite dutenen artean, Puccinik leku nabarmena du, baina musikagile honen gauzarik interesgarriena da bere musikak benetan hunkitu eta ukitu egiten dituela printzipioz arte horrekiko interes berezirik ez duten pertsonak. Operak aspertu egiten dituela aitortzen duten pertsona asko ezagutzen ditut, baina, hala ere, pertsona horiei oso hunkigarriak iruditzen zaizkie, besteak beste, *Madama Butterfly*, *La Bohème* eta *Turandot* operetako pasarte batzuk.

Hau da, Puccini mundu guztiaren bihotzera iristen da, eta horrek badu arrazoia. Luccan (Toscana, Italia) jaioa 1858an, operako verismoaren azken ordezkarietako bat da konpositorea, literatur naturalismoan jatorria duen mugimendua. Hala ere, Puccini verismo horretatik aldentzen da nolabait, eta askotariko eraginak ditu: miretsi zuen Richard Wagnerrena, Bizet edo Massenet konpositore frantsesena. Haiei esker lekuen eta historiaren kolore bereziak kontu handiz islatzen ikasi zuen. Izan ere, Pucciniren ezaugarri nagusia garai bakoitzeko giro historikoaren berreraikuntza musikal bikainak egiteko gaitasuna da: *Turandot*-en Txina, *Madama Butterfly*-n Japonia, *West-eko fanciulla*-n Amerikako Estatu Batuetako Mendebal-



dea, *Manon Lescaut*-en eta *La Bohème*-en Paris, *Tosca*-n Aita Santuaren Erroma eta *Gianni Schicchi* -n XIII. mendeko Florentzia. Testuinguru eta giro horiek guztiak ezin hobeki islatuta daude bere lanetan.

Puccinik publikoarengan duen eragina azaltzeko, horri guztiari gehitu behar diogu bera oso nortasun bereziko konpositorea izan zela. Bere garaian, XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran, abangoardia musikalak hasi ziren, eta berak hortik alde egin zuen. Publikoarengan pentsatuta konposatzen zuen, antzezpenak asko zaintzen zi-

tuen, eta bere lanen birak mundu osoan jarraitzen zituen.

Kritika musikalak komertziala zela esaten zuen, nolabait, eta ez zuten gehiegi estimatu. Leporatzen zitzaion bere musika ez zela ez italiarra, ez errusiarra, ez alemaniarra, ez frantsesa. Ezta behar ere. Beharbada bere asmaketa inportanteena bere eklektizismoa izan zen. Hizkuntza eta kultura musikal desberdinek bere bereganatu eta sintetizatzen zituen.

Koktel hori guztia eta askoz gehiago izan zen Puccini. Ez galdu *La Bohème* datorren hilabetean. ●

# Zoriona banatzeko prozesu demokratikoa

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**S**egur aski ez da izango EAEko hauteskunde gaueko daturik aipagarriena, baina niretzat behintzat oso garrantzitsua izan da, ondorengo analisi guztiak baldintzatu baitizkit: seko lo geratu nintzen zebaketa hasi baino lehen –baina lo, lo; harri kozkor batek ere nik baino REM fase biziagoa edukiko zuen une horretan–, eta esnatu nintzenerako telebistako platoetan ez zen geratzen ezta erratza pasatzen duena ere. Ez begiratu horrela, badakit ez dirudiela oso profesionala, baina mando bat etzateko moduko eguna pasea nuen; eta lege berriren batek kontrakoa adierazten ez duen bitartean, zazpigarren egunean deskantsu pixka bat hartzea ez da jainkoen pribilegio eskusiboa oraindik.

Hori bai, aukera paregabea galdu dute etxekoek *Good bye, Lenin!* pelikularen bertasio domestiko bat nirekin probatzeko. Kontatu ziezadaketen beste emaitzaren bat, emaitza sorpassatu bat alegia; eta berandu denez, eta gela honetan WiFi ezker konfederalaren botoa bezalakoa denez –etortzen den bezain erraz joaten dela, alegia–, sine-tsi egingo nuen kontraste handirik egin gabe. Egoera horretatik aterako zen artikulua eldarnio hutsa izango zen noski, baina biharamunean kalera atera ahaliko nuen lotsaz aurpegia estali gabe, izan ere, hauteskunde gauean beste inoiz baino argiago geratzen da errealitate paraleloetan bizi garela.

Hortaz, esplika dezadan gehiago luzatu gabe errealitatea ikusteko nire manera: EAEn, pasa den igandean, ez da hauteskunderik izan. Partidu bakoitzak emaitzak nola baloratu dituen ikusita behintzat, zehatzagoa da esatea zoriona banatzeko prozesu demokratiko bat bizi izan dugula, ia mundu guztia bai-



tago kontent lortu duenarekin. EAJ pozik dago, emaitza honekin Ajuria Eneari beste lau urtez eutsiko diolako Gollumek bere altxorrari bezala. EH Bilduk ere biribilketa alegean dantzatu dezake, anaia nagusiaren tamaina bereko bizikleta daukalako orain. PSE-EEkoak alaitasunez kabituz ezinda daude, Sabin Etxeko errapeetatik esne kondentsatua aterako baita lehendakartzaren truke. Hain pozik ez, baina irribarrez hala ere PPkoak, azken hogeitaz urteetako gain-behera progresiboa eten baitu Javier de Andresen Brummel lurrinak. Eta Voxeko ere pozik, legebiltzarkide etarrei zigarroak linburdikatzan jarraitu ahaliko baitu atsedendietako bakardadean erretzeko, gauza naziak pentsatzen dituen bitartean.

Pozik ez diruditen bakarrak Podemoskoak eta Sumarrekoak dira, berreizita aurkeztea katastrofe hutsa izan

baita, aurreikuspen guztiak betez. Bila diezaiegun pozteko motiboren bat, beraz, une zail honetan bizkarrean txapak egiten diegun bitartean: “Baietz, badakit oso gaizki atera zaizula, baina zuk behintzat argi daukazu arrazoia zeneukala. Nori inporta zaizkio botoak hori jakinda?”. Hum. Ez dakit funtzionatuko duen.

Igual beste jardueraren bat proposatzea da kontua, espazio horretako lehia kaindarrek utzitako zauriak goxatzen laguntzeko. Nik zer dakit, berradiskidetzearen aldeko poesia errezitaldi bat, adibidez: “Elkarrekin Poemas: sumatzen da hitza”. Nik hor uzten dut ideia. Eta lotara noa berriz, artikulua honen hasieran nire buruari jarritako helburua horixe baitzen. Suerte pixka batekin, esnatzen naizenerako hurrengo hauteskundeetako emaitzak ere zenbatuta eta albaranatuta egongo dira. ●

# egonarrria

Lurrari entzuten dion saioa

Pilpilean diren gaiez elkarrizketak,  
**Eli Pagolak** gidatuta platoan.

Laborarien esperientziak,  
**Mattin Jauregik** jasoak landatik.

Asteazkenero [argia.eus](http://argia.eus)-en eta  
plataforma guztietan

 [ARGIA.eus/podcast](http://ARGIA.eus/podcast)

## Maitzak 2

### Zomorroak

Iñaki Mezquita Aranburu (Aranzadi)

## Maiatzak 9

### Kubako lehen sektorea, ezinbestean agroekologikoa

Amets Ladislao

## Maiatzak 16

### Amillubi proiektutik: taupaka hasi da lurra

## Maiatzak 23

### Elikagaiak transformatzeko gune kolektiboak

Arantza Arrien (Arabako Lautada  
Landa Garapena)

## Maiatzak 30

### Ibaietako egoera, arrainak, ekosistemak

Arturo Elozegi (biologoa)



# BIZI BARATZEA

## Zure landareak zaintzeko

Jakoba Errekondoren eskutik




**Bizi Baratzea**  
8. argitaraldia  
25 €

Baratzezaintzaren jakintza osoa bildu da liburu honetan. Baratzearen entziklopedia.



**Etxeko landareak**  
2. argitaraldia  
25 €

Etxeko barruko, balkoiko, eta lorategiko 92 landare hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu liburu honek.



**Ilargia eta landareak 2024**  
urteko lanen agenda  
15 €

Landareekin egiten ditugun lanak jaso eta ikasteaz gain, agendan idatziko ditugu bakoitzak gure bizitzako hitzorduak, gogoan hartu beharrekoak eta gainerakoak.

Garbiñe Larrearen eskutik



**Sendabelarrek dakitena**  
2. argitaraldia  
25 €

45 sendabelarren propietateak ezagutzeko eta osasunaren mesedetan erabiltzeko informazio zehatza aurkituko duzu liburu honetan.



**Sendabelar Baratzea**  
14 €

12 sendabelarrekin sendatzeko baratzea lantzeko proposamena egiten dizugu liburu biribil honekin.